



2017ko irailean

NERABEAK ETA DEMOKRAZIA

DBH 3 ETA 4KO IKASLE TALDE
BATEN IRUDIKAPEN SOZIALETAN
OINARRITUTAKO IKERKETA



upna

Universidad
Pública de Navarra

Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

EGILEA: MIKEL OLAZAR BAZTERRIKA
MASTER AMAIERAKO LANA

TUTOREA: EMILIP MAJUELO GIL
TUTORE-ORDEA: ZURIÑE SAINTZ PASCUAL

DATA: 2017/09/05
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBIKOA

LABURPENA

XXI. mendeak bizi dituen aldaketa sakonen harira eta politikak irmoki XX. mendeko egiturari eusten jarraitu duen honetan, krisi testuingurua bizi dugu gizartean. Liberalismoak ezarritako sistema politikoaren baitan parte hartzearen praktika sustatuko lukeen eredu baten aldeko jarrerak ugaritu egin dira azken urteetan. Honekin batera, hezkuntza sistemak ez ditu gure gazteak hiritartasunean hezitzen, eta horrek kontzientzia kritiko bat garatzea zailtzen du halaberharrez. Testuinguru konplexu honen baitan, inkesta moduan plazaratutako ikerketa bat gauzatu da ikasle talde batengan, gazte hauek demokraziarekiko eta politikarekiko dituzten ideia, iritzi eta sinesmenak azterturik gazte hauen eta gizartearen egoera aztertzeko.

Hitz Gakoak: demokrazia, politika, irudikapenak, gazteak, parte-hartzea

RESUMEN

En estos últimos años de cambios profundos, el sistema político liberal sigue aferrándose a las mismas estructuras y formas de gobierno que el siglo anterior, haciendo que la propia política resulte incapaz de hacer frente a los grandes problemas que en gran medida se derivan globales, pero que contienen un fuerte componente local. Ante la pasividad frente al cambio, la sociedad, cada vez más alejada respecto a estas formas de gobierno, reclama nuevos modelos de participación. También lo hace el propio sistema educativo, que no prepara a nuestros jóvenes para que puedan integrarse en la sociedad con una conciencia crítica y políticamente preparada. En este contexto tan complejo, el presente trabajo trata de analizar las representaciones sociales, así como una breve aproximación de la postura frente a la realidad política de un grupo de alumnos y alumnas ubicado en un contexto determinado, con el objetivo de entender la realidad sociopolítica de la determinada sociedad.

Palabras clave: democracia, política, representaciones sociales, jóvenes, participación

ABSTRACT

In this years of deep changes in our society it seems that politics do not wish to do so. As a result of this conservative attitude, people has begun to demand new participatory models as well as forms of governments. Education system also seems to follow this way, as it is unable to prepare our young boys and girls as future integrated and consciously critical citizens. This essay tries to learn the way this young boys and girls think, feel and act about democracy and the political reality by elaborating an inquiry in selected group of 70 students so we can understand better this complex reality.

Key Words: democracy, politics, young boys and girls, participation, social representations

Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Marko epistemologikoa	4
2.1. Testuingurua: globalizazioa, kapitalismoaren berregituraketa eta demokraziaren ahultzea.	4
2.2. Estatuak, merkaturak eta gizarte zibila: demokrazia liberalaren krisia	9
2.2.1. Demokrazia liberala: jatorria eta definizioa	9
2.2.2. XXI. mendeko krisi politikoa: kausak eta faktoreak.....	10
2.3. Demokrazia eta gizarteak: gobernu forma eta ekintza sozial berriak.....	13
2.3.2. Parte hartze politikoa	16
2.3.3. Erabakitze eskubidea: oinarri juridiko-filosofikoa eta definizioa	17
3. Marko didaktikoa.....	20
3.1. Teoria kritikoa.....	20
3.2. Ikastetxea sozializatorako aktore bezala?.....	21
3.3. Irakaskuntza gizarte zientzietan	22
3.4. Irakaslearen formakuntza gizarte zientzietan	24
3.5. Ikasleak eta parte hartzea	25
3.6. Irudikapen sozialak eta demokrazia	27
3.6.1. Irudikapen sozialak	27
3.6.2. Demokraziaren irudikapenak	28
4. Marko Psikopedagogikoa	29
5. Marko metodologikoa.....	30
5.1. Testuinguru akademikoa	30
5.2. Ikerketaren helburuak.....	32
5.3. Ikerketaren sortze prozesua	33
5.3.1. Demokraziarekiko aurreiritzi eta ideiak	33
5.3.2. Errealitate politikoarekiko hurbilketa.....	36
6. Eraitzen analisia	39
6.1. Demokraziaren ideia zahar-berriak	39
6.2. Nerabeak eta parte hartzea	45
6.3. Nerabeak eta errealitate politikoa: gizartearen eraldaketa motorra?.....	47
7. Ondorioak	50
8. Bibliografia	52
9. Eranskinak	54

1. Sarrera

17 urte igaro dira jada mende berrian sartu ginenetik eta badirudi mundua erabat desberdina dela milurteko berriari hasiera eman genion momentuarekin alderatuz: Europako integrazio proiektua hankaz gora jarri da, Estatu Batuetako errealitatea guztiz gorabeheratsua bilakatu da, gatazka gune berriak ireki dira, talde armatu berriak sortu eta beldurra zabaldu dute nonahi, ekonomiak lurra jo du toki batzuetan (Europar batik bat), besteetan garapen sendoren bideari eusten dion bitartean (Asian), tentsio soziala areagotu egin da.....

Ikuspuntu sozio-politiko batetik ikertu behar bagenu errealitate hau, testuingurua XX. mendearen erdialdean baino askoz ere konplexuagoa bilakatu dela esan genezake: gizartea erabat aldatu da ordutik, informazio iturrietara iristeko ahalmena edukirik lehen baino ezagutza zabalagoa baitu, eta hala erakusten du bere jarrera aktibo eta organizatuak. Teknologiaren iraultzak ere parte hartzeko, komunikatzeko eta azken finean gizartea ahulduta sentiarazteko oinarriak finkatu ditu; ongizate estatuaren desintegrazioak eta krisiaren harira pairatutako egoerak protagonismo handia eman dio ekonomiari, eta honekin lotuta bizitza politikoa arazo bilakatu da lurralde askotan, ustelkeria eta alderdikeria salatzen dute aitzin sistema demokratiko osasuntsuaz harro zeuden herrialdeetan; komunikabideek gure erabakitzeko ahalmenean sekulako eragina hartu dute... azken batean, gizartearen arazoak kudeatzeko erak berritzeko beharraren atarian kokatzen gara (MARGARIÑO;2011).

Berritzeko beharraren atarian gaude bai, munduak garai aldaketa baten aurrean gaudela defendatuko lukeen tesi bat babesteko moduko dinamikak pairatzen ari den bitartean, testuinguru politikoa zurrin mantendu baita urte guzti hauetan zehar. Gai honen inguruan hainbat autorek ikuspuntu aldaketa bat eman beharko litzatekeela aldarrikatzen dute, gobernutik gobernantzarako auzi bat hain zuzen ere.

Sergio Garcia Margariñoren lanak aldarrikapen hauek biltzen ditu, eta gaur egun arazo honen ondorioz ematen diren krisi politikoa hiru fronteetatik heldu dela defendatzen du: alde batetik politikak ez ditu egokitutako betebeharrak behar bezala burutzen; bestetik, arazoak nazioartekotu dira globalizazioaren ondorioz, baina hauek ez dute erantzun egokirik jaso, erabakitzeko ahalmena ezpaita maila honetan sendotu, eta beraz ez du nahiko indarrik eraginkortasunez jarduteko; gizarteak pairatu dituen aldaketak (goian azaldutakoak) aktore organizatu eta ahaldundu baten agerpena adierazten dute, gobernu erabakietan eragiteko ahalmen handia duena.

Laburbilduz, politika harremanek (nola barruan nola nazioartera begira) ezin dute bere horretan jarraitu, horregatik askok gobernantzaren aroa eman beharko litzatekeela aldarrikatzen dute. Funtsean, gobernantza gizarte garaikidean emandako ekintza sozialak eta gobernu formak aldatzean

oinarrituko litzateke. Definizio honetan sakonduz, globalizazioan eta nazioarteko menpekotasunean oinarritutako testuinguruaren baitan Estatuak, gizarte zibilak eta merkatuak osatutako egitura izango litzake, subiranotasunaren izaera kooperatibo bat eta ez hain hierarkikoa edukiko lukeena.

Idea hauekin bat etorririk, jarraian jorratzen den lanak aldaketa politiko honen bidean zertzelada batzuk emateko asmoa du, Euskal Herriko txoko batzuen egoera soziopolitikoaz aztertu nahi baitu, mendi bailaretako herri txiki batzuen hain zuzen ere. Horretarako, Nafarroako Malerrekako ikastetxe bateko (Mendaur B.H.I) ikasle talde baten iritziak, ideiak eta ezagutza maila jokoan jartzen dituen inkesta bat gauzatu da, inguru horretako gazteek politikarekiko adierazten duten jarrera interpretatuz islatzen duten gizarte talde horren egoera zein den aztertu nahi baita.

Guztira 70 lagin bildu dira, 3 eta 4 DBHko neska mutilen erantzunez baliatuz. Inkesta honen helburua, esan bezala, nerabe hauek planteatutako ariketei erantzuna emanez demokraziarekiko eta honekin lotuta parte hartzearekiko erakusten duten jarrera ikertzea da, ikusteko ea hainbat adituek dioten bezala gizartearen erroten aldatu den eta egoera politikoa egokitzea eskatzen duten. Bestetik, analisi zabalago bat egite aldera, gazte talde hauen profila lortzea helburu duen galdera sorta bat ere gauzatu da inkesta honen baitan. Errealitate politikarekiko duten hurbilketa eta ezagutza maila jokoan jarriz, hauen ideiak zein testuinguru motatik datozen ikusi nahi da.

Azkenik, aipamen berezi bat hezkuntza sistemari: hiritartasunean hezitzen al ditu nerabeak? Gizartearen integrazterako beharrezko gaitasunak eskuratzen dituzte? Era autonomoan jarduteko prestakuntza jasotzen dute? Hezkuntza sistemak nerabeen hiritartasun eta kontzientzia kritikoaren garapenean jokatzeko duen paperak ere merezi du aparteko analisirik, bertan azaleko ondorio batzuk ateratzen badira ere.

2. Marko epistemologikoa

2.1. Testuingurua: globalizazioa, kapitalismoaren berregituraketa eta demokraziaren ahultzea

Egun ezin da ulertu ekintza sozialen edo gobernu jardueraren aldaketa sakona lehenik jarduera hauek egituratzen dituen testuingurua ongi aztertzen ezpada, hau da, estatuak, merkatuak eta gizarte zibilak osatzen duten espazio abstraktu eta konplexu hau zertan oinarritzen den azaltzen ezpadugu. Lan honi dagokionez, espazio hau, hein handi batean behintzat, bi faktore nagusik egituratzen dute: globalizazioak eta kapitalismoaren berregituraketak. Eskutik etorritako bi dinamika desberdin dira, abiadura desberdinetan garatu direnak baina elkarri eraginez osatu direnak eta azken urteotako aldaketa nagusienak eragin dituztenak.

Kapitalismoaren berregituraketari erreparatzen hasita, zera ulertarazi nahi da kontzeptu honen bidez: 70-80. hamarkadatik aurrera jarduera finantzarioaren nagusitasunean, edo beste hitz batzuetan esanda, finantzarismoan oinarritutako eredu ekonomiko baterako jauzi bat eman zela eta gaur egun arte garatzen joan diren ondorio batzuk eragin dituela. Finantziarismoak egitura aldaketa nabariak eragin ditu, hala nola: kapital fluxua jarduera ekonomikoaren oinarri bilakatu da, zeinaren aktibitatea hamar aldiz biderkatu den urte gutxitan, inongo lanpostu eta balore materialik produzitu gabe, irabaziak baino interesak sortzera bideratzen baitu bere jarduera. Interesengatik lortutako irabaziak enpresariak beraien produkzioaren bitartez lortutakoa baino handiagoa bilakatu da, bilioika dolarreko kapital fluxua sortzeraino gure egunerokotasunean, merkatu zurrumurru eta arrisku bidezko jarduera espekulatzailerak nagusituz. Lan merkatuan bere eragina nabarmen kaltegarria suertatu da, izan ere, lanposturik ez sortzeak langabezia tasak igotzea ekarri baitu, jarduera produktiboak pairatutako mekanizaziotik eratorritako lan indarraren jaitzieraren eraginez eta jarduera industrialaren deslokalizazioaren ondorioz bigarren sektoreak sortu duen gabezi hau betetzeko gai ezpaita izan sektore finantzarioa, bere pisua ekonomian esponentzialki igo bada ere. Bestalde, ekonomiaren tertziarizazio honek industriaren lekua hartzea lortu badu ere, lan merkatuaren krisia arintzea baino areagotzea eragin du. Besteak beste, desberdintasunaren areagotzea ekarri du, jarduera espekulatzailerak produktuen arteko balore eta merkatuko prezioen arteko desorekak eragin baititu eta zerbitzu sektorearen garapenak duinak ez diren lan baldintzak sortu baititu, irabazleen eta galtzaileen egoera sustatzen dituen gure gizartearen baitan¹.

Ekonomia global honek sortutako jarduera espekulatiboak 2007an sistemaren oker guztiak azaleratu zituen Estatu Batuetako ekonomiak eztanda egin zuenean J.P Morgan eta Goldaman Sach inbertsio bankuen aktibo zaborren salmenta azaleratu zenean, mundu mailako sistema finantzarioaren krisia sortuz, ondoren sistema ekonomiko osora hedatuko zena. Oker guzti hauek jadanik 70. hamarkadan sustraitzen hasiak ziren, petrolioaren krisiak egun neoliberalismoa deritzon egitura ekonomiko baten erreforma saila sustatu zituenean Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako ekonomietan, izan ere, orduetik lan errentan oinarritutako ekonomia bat izatetik pixkanaka kapitalean oinarritutako batera igarotzen hasi baitziren mendebaldeko potentzia nagusiak, jarduera finantzarioaren eta ondorioz espekulazioaren igoerari hasiera emanez².

Honekin batera, eta globalizazioaren eskutik, XX. mendearen azken urteetan aldaketa sakon batzuk eman direla azpimarratzen du Manuel Castellsek *La Era de La Información* liburuan: alde batetik iraultza teknologiko nabaria atzematen du urte horietarako, eta nola hau gizartearen oinarri materiala goitik behera aldatzen hasia zen. Honekin batera ekonomiaren nazioarteko

¹ Finantziarismoaren ideia, besteak beste Arrighik eratzten dituen ziklo historikoetan oinarritzen da. Sakontzeko: ARRIGHI, Giovanni (2014), *El largo siglo XX*, Madrid, Siglo XXI

² Inside Job dokumentaletik hartutako ideiak dira hauek.

menpekotasuna gero globalizatuagoa bilakatzen hasia zela defendatzen du, Estatu eta gizartearen arteko harremana errotik aldatzen ari zena (CASTELLS;1996).

Hobsbawmen iritziz, globalizazioak gizartearen esparru guztietan egin du aurrera, hau da, arlo ekonomikoan, teknologikoan, kulturean, hizkuntzan..... baina politikan ez du inolako eraginik eduki, lurralde fisikoari atxikita jarraitu duelako. Gizartearen aurrerapauso bat bailitzan aurkeztua izan bazen ere, globalizazioa gerra hotzeko irabazleen (Mendebaldeko potentzien, eta hots, Estatu Batuen) nagusigoa hainbat fronteen bitartez mundu mailara hedatzeko estrategia suertatu da herrialde pobreenen aurrean. Britainiarrak lau fronte nagusi bereizten ditu ibilbide honetan (HOBBSAWM; 2015):

- Arlo ekonomikoan, globalizazioak Europa eta Estatu Batuetako enpresen interesak nazioartekotzea bilatu duela uste du, merkataritza eta kapital fluxuari ezarritako mugak kentzen ahalegindu baitira nazioarteko hainbat erakunde eta itunen bitartez. Dolarraren nagusigoa, NDF, MB edo kalifikazioa agentziak estrategia honetara bideratutako tresnak izango lirateke.
- Arlo politikoan, sistema “demokratikoa”ren eredugarritasuna aitzat hartuta, tokian tokiko gatazka politikoetan zein beste herrialdeetako gobernantzan esku hartze zuzen eta sistematikoa aplikatu da nagusigo militarraz eta nazioarteko erakundeen kontrolaz baliatuz.
- Kulturaren arloan, Estatuaren arteko muga fisikoaren ahultze prozesu honetan homogeneizazioa baterako joera bat agertu da mundu mailan, Estatu Batuetako aberastasunak eta kontsumo gizartearen irudiak txunditurik Soft Powerrek tokian tokiko jendearen amerikanizazio txiki bat eragin du, Hollywoodek gauzatu duen munduaren konkistarekin batera, ingelesa nazioarteko hizkuntza bilakatu den heinean.
- Arlo ideologikoan, Mendebaldeko potentziek bere egin dute mezua, zeinen sistema politikoak askatasuna bermatzen duenez bortizkeriaren aurkako aldarri balira agertzen duten euren burua. Demokrazia sistema politikorik hoberena bezala aldarrikatu eta ikusia izan da denon begitan, bai atzean zekarren kontsumo gizartearen bizi-kalitate altua erakargarri suertatzen zelako bai alternatiba politiko garbi baten falta zegoelako.

Hobsbawmek Estatu Batuen inperio globala eman dela defendatzen du, epe laburrean izan bada ere, hau izan baita nazioarteko itunak eta akordio desberdinak baztertu eta bere gisa jarduteko gai izan den potentzia bakarra, eta ez hori bakarrik, bere teknologia militarren lidertza dela eta, operazio militar bat edonon eta denbora tarte labur batean gauzatzeko ere gai izan dela uste du.

Hala eta guztiz ere, Asia-Pazifikoranzko poloaren mugimenduak izan du eraginik bere aberastasunean, pixkanaka pixkanaka lekua hartzen hasi baitzaio Txina mundu mailako ekonomia

bezala, eta bertako enpresak Estatu Batuetako multinazional teknologikoen (Google, Apple, Amazon....) monopolioa hausten hasiak dira dagoeneko. Bestalde, aberastasunaren murrizketa honek gizartearen zati handi batean kalteak eragin ditu, kontsumo-gizartearen ideala kolokan jartzen hasia dena, eta honekin batera familia egitura tradizionala gainbehera txiki batean erori da, izan ere, bizimodu amerikarrak familia kristauaren kontsumo bizi saltzen baitu baina desberdintasunaren areagotzeak eta sektore haundi batean pobretzeak bizimodu hau lortzeko zailtasun handiak eragin ditu potentzia honen barruan. Honekin batera, Bush Doktrinak sustatutako Iraken aurkako alde bakarreko gerrak arlo ideologikoan min handia egin dio behin eta berriz saldu izan den askatasunaren ideal horri, azken finean, demokraziaren eredu ez da saldu den bezain baketsua suertatu, eta azkeneko krisian ikusi da nola gizabanakoaren eskubideak ez diren hainbeste errespetatzen kalera protesta egitera ateratzen direnean.

Honekin batera, globalizazioak beste ondorio garrantzitsu bat ekarri badigu aktore berri batzuen agerpena izan da, multinazionalena alegia. Egoera ekonomiko horren baitan lege eta zergetatik at merkatuaren logika berri honi esker euren zainak mundu mailan hedatu dituzte, Estatu tradizionalen eraginari gainjartzea lortuz, horrela, eragin politiko nabaria lortu dute gobernu ezberdinen hainbat erabakietan esku hartzeko orduan. Gainera, ordu arte merkatuaren logikan txertatuta ez zeuden hainbat zerbitzu salgai bilakatu ditu. Eta ez hori bakarrik, publikoak ziren zerbitzu asko pribatizatzea (polizia, posta, kartzelak...) lortu du ere³.

Horretaz gain, globalizazioak beste ondoriorik eduki badu arazoaren nazioartekotzea izan da hori: sistema finantzarioaren krisiak erakutsi du azken urteotan munduko ekonomiaren okerrak herrialde aberats batean azaleratzen direnean nola hedatzen ahal den hori herrialde guztietara; baina honekin batera terrorismoak ere globala izatea ere lortu du, testuinguru ekonomiko honetatik baliabide materialak erraztasunez lortu zein jarduerak hedatzeko aukera gehiago baitaude orain; mundu-sistema honek sortutako galtzaileen artean pobrezia eta migrazio fluxu arazo handiak sortzen hasi dira jada, batzuk gerraren testuinguruan badira ere arrazoi nagusia ekonomikoa izaten jarraitzen duela; familia egitura tradizionala gainbehera prozesuan dago, bai gizartearen barruan aldaketa prozesu txiki bat egon delako bai honen baitan desberdintasunak areagotu direlako; multinazionalen agerpenak gobernuen eragina txikitzea lortu du, eta bertako agintarien ustelkeria sistematikoa azaleratu du; narkotrafikoa globalizazio ekonomikoak eskainitako abantaila materialez baliatu da (komunikazioa hobekuntza gehienbat) bere jarduera hobetzeko orduan; gatazka politikoek nonahi agertzen jarraitzen dute, bai herrialde baten barruan bai horien artean, baina kasu guztietan

³ Multinazionalen eragina eta indar sozialen egitura berria Coxek jorrotutako ideiatik garatu da, Hobsbawmek egindako ekarpenekin osatuz: W. COX, Robert (2013), *Fuerzas sociales, estados y órdenes mundiales: Más allá de la Teoría de Relaciones Internacionales*, *Relaciones Internacionales*, 24, Grupo de Estudios de Relaciones Internacionales GERI, UAM, Madrid

hirugarren potentzia baten zeharkako esku hartze beltz batek sustaturik edota indarturik; kontsumo gizartearen baitan sustatutako kapitalismoa ingurune arazo larriak eragiten ari da; eta are larriagoa, arazo guzti hauei aurre egiteko ez dago nazioarteko kotsentsurik, eta beraz, bide orri finkorik (MARGARIÑO;2011).

Honekin guztiarekin zera azpimarratzera nator: estatu bakar batek ezin dituela bere kabuz jadanik nazioartekoak diren arazoak konpondu, eta ondorioz, zibilizazio krisi baten aurrean gaudela. Boterea eta honekin batera aberastasuna Atlantikotik Pazifikorantz doan momentu honetan finantziarismoak bultzatutako globalizazioak ezin ditu arazo hauek bere kaxa konpondu, politikak lurraldeari atxikita jarraitzen baitu eta nazioarteko erakundeek ez dutelako gobernuen babes osoa jasotzen.

Bestalde, Txinaren eta Hego-ekialdeko Asiaren berrindartzeak erakunde berri batzuen agerpena ekarri du, hala nola, AIIBrena (Asian Infrastructure Investment Bank), bere eragina Asian finkatua izanda ere, NDF eta MBren boterea hartzera deitua dagoena epe ertain-luzera. Zeta bidearen estrategia berriak, bestalde, garbi erakusten du ekonomiaren nagusitasuna Asiarantz mugitzen ari den honetan Txinak ia Asia guztia, Afrikaren zati handi bat eta Europa bera merkataritza sare erraldoi batean bildu nahi dituela, sekulako azpiegiturak garatuz horretarako⁴.

Laburbilduz, azken urteetan aldaketa nabarmenak eman dira mundua mailan, baina bereziki azpimarragarriak izan dira multinazionalen agerpena nazioarteko aktore bezala alde batetik, eta Estatu Batuak ezarritako 1945ko hegemoniaren ahultze sistematikoa bestetik, nagusigo hau mantentzeko ezarritako erakundearen eraginaren moteltzearen ondorioz, hala nola Nazio Batuak, NDF, BM (COX; 2013)... Gaur egun anitza suertatzen den nazioarteko botere banaketaren testuinguru berri honetan ez da aldeaniztasunerako espazio berririk sortu⁵, eta are okerragoa bilakatu da egoera krisi ekonomikoaren ondoren emandako dinamikan. Bereziki nabaria izan da adierazpen hau Estatu Batuetan, non Trumpen garaipenaren ondorioz isolamendu baterako joera erakusten hasi den oraindik lehen potentzia diren Estatu Batuak, Europaren integrazio prozesua kolokan jarri den une berean eta gatazka politiko zaharrak berritu. Dinamika hauen ondorioz, nazioarte mailan Mendebaldeko demokrazia ereduak porrot ideologiko garbia pairatu du mundu mailan, eta bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, Estatu Batuetako eredu politiko-ekonomikoa baino Asiako eredu gailentzen hasi baita.

⁴ 2016ko master proiektuan jorrotutako hipotesia. Iturri azpimarragarriak:

⁵ Esther Barbek egindako ekarpenetan oinarritutako ideia. Sakontzeko, BARBÉ, Esther (2010), Multilateralismo, adaptación a un mundo con potencias emergentes, *Revista Española de derecho internacional, Sección ESTUDIOS*, LXII/2, 21-50

2.2. Estatuia, merkatua eta gizarte zibila: demokrazia liberalaren krisia

2.2.1. Demokrazia liberala: jatorria eta definizioa

Behin gobernantza hau osatzen duen nazioarteko testuingurua definituta, nola egituratzen dira bai gizartearen aldetik bai gobernu formen aldetik emandako ekintzak? Azpimarratzekoa da, zentzu honetan, merkatuaren agerpenak sustatu duen nazio-estatu tradizionalaren eraldaketa eta gizarte zibilaren egituraketa. Honek guztiak, 2007an emandako krisi ekonomikoak indarturik, sistema politikoaren krisia eragin du Mendebaldeko potentzietan, izan ere, aldaketa sakonak eman direla deskribatzen dugun testuinguru honetan sistema politikoa ez da errealitate honetara egokitzen saiatu eta horrek ondorio kaltegarriak eragin ditu.

Sistema politikoari buruz hitz egiten hasi aurretik, kontzeptua argitzea komeni zaigu. Bertan landuko den eredia “demokrazia liberala” izango baita, jarraian tentu handiz definitzen saiatuko gara. Lan honetan demokraziaren inguruan jardungo dugunez, aipatu tradizio historiko luzea duen elementu bati buruz ari garela hizketan, garapen berezi bat bizitu duena eta ezaugarri desberdinak barneratu eta baztertu ondoren egun ezagutzen duen forma hartu duena. Lan honen helburua eztabaida epistemologiko bat sortzea ez denez, ezaugarri nagusienak hiru multzo nagusietan aurkeztuko dira, eragin handiena eduki duten fenomeno historikoei erreferentzia egiteko (GIL;2013):

- Lehenik eta behin, bere jatorria Antzinako Grezian kokatzen da, hortik datorkiola bere izena (“*demos*” herri eta “*kratos*” gobernu). Bertan polisaren aferak herritarren parte hartze zuzenaren bidez argitzen ziren, eta kargu publikoak edo herriko epaimahaiak zozketa bitartez izendatzen ziren. Subiranotasunaren praktika modu pertsonalean, zuzenean eta besterenezinean gauzatzen zen, inolako talde edo komunitateren ordezkariarik gabe, ezta hesidura ideologikorik gabe ere. Polisaren inguruko erabakien parte hartze honen bidez jarduera politikoaren ariketa eremu publiko eta pribatura hedatzen zen, norbanakoaren eta komunitatearen interesen bateratzea eragiten zuena.
- Honekin batera, XVIII. mende bukaeran emandako iraultzek errepublikanismoaren zantzu batzuen txertaketa gauzatu zuten, hala nola, ordezkariaren bidezko parte hartzearen kultura, botere banaketa eta sufragioaren hedapena. Liberalismoak, ideia horiek bildu eta sistema politiko propio bat garatzeko gai izan da orduetik, demokrazia modernoaren oinarriak ezartzera iritsiz.
- Liberalismoa Erresuma Batuan XVI eta XVII. mendeetan zehar emandako merkantilismoaren garapenarekin nagusitutako doktrina dugu, XIX. mendetik aurrera munduan zehar hedatu zena. Bizitza publiko eta pribatuaren arteko bereizketa egitea lortu zuen honek, estatuaren

eragina jarduera ekonomikoetatik babesteko interesa baitzegoen. Baina honekin batera, komunitatearen kontzeptua ahuldu eta gizabanakoaren nagusitasuna aldarrikatu zuen ere.

Liberalismoaren baitan, legitimitatea ez da parte hartze zuzenarekin ulertzen, legearen betetzean, boterearen banaketan eta gizabanakoaren eskubideen aitortzan baizik, demokrazia klasikoarentzat ezezagunak zirenak. Kapitalismoaren logika jarraituz, bakarrik gaitasuna zutenek bete zezaketen paper hau, geroz eta hedatuago zegoen sufragioaren bitartez hautatuak izanik.

Horren ondorioz, gizabanakoa bizitza pribatuko subjektu aktibo eta publikoko pasibo bilakatuz joan da. Gero eta arreta gutxiago eta uko handiagoa eragin du honek jarduera publikoari dagokionez, bizitza pribatutik heldu baitzaio etekina (eta publikotik traba). Jarduera publiko bakarra, ondorioz, sufragioaren bidez gauzatutako parte hartzera mugatu da gure egunetan.

Azkenik, ordutik garatutako eredu politikoak ordutik eman diren aldaketa historiko nagusietara moldatzeko gaitasuna erakutsi du: Frantziar Iraultza eman zenetik jada industrializazioak teknologiaren garapena sustatu du gizartearen baitan, Estatuaren jarduera burokratizatu da, sufragio unibertsala onartu da, eskubide zibilak handitu dira, alderdi politikoek betetzen duten egungo papera desberdina da... hauetara denetara egokitu da demokrazia liberala, Estua ongizate sozialaren bermatzaile bakarra bihurtuz, bereziki Bigarren Mundu Gerra eta gero.

Azken urteetako dinamiken azterketa oinarri zuen lanean, Eric Hobsbawmek zioen egungo demokrazia eredu aztertzerako orduan, Mendebaldeko estatuen sistema politikoaren definizio estandarrek errepublika, konstituzio eta ordezkartza kontzeptuak berekin eduki behar zituela. Konstituzioak nolabait berme juridikoa eskainiko luke, zuzenbide estatu baten aurrean kokatzen garen honetan; errepublikak giza eskubideak bermatuko lituzke, hiritartasun kontzeptuari lotutako eskumen zibil eta politikoak hain zuzen ere; eta azkenik, autoritateek osatutako gobernuak, sufragio bidez izendatuak eta ordezkartza asanbladetan jarduten dutenak

Hala eta guztiz ere, badirudi azken urteetako dinamikak izan duela eraginik sistema politikoan, globalizazioaren sorrerak eta honek ekarritako ondorioak hainbat gobernu forma jomugan jarri baititu, bereziki nabaria izanik Europako herrialde gehienetan, krisi ekonomikoak eragindako aldaketak direla eta.

2.2.2. XXI. mendeko krisi politikoa: kausak eta faktoreak

Hobsbawmek XXI. mende hasieratik aldaketa nabariak ematen hasi zirela iragarri zuen, baina ez hainbeste sistema politikoaren barruan, gizarte eta sistema politikoaren arteko harremanean baizik. Aurreko ideiekin bat etorriz, zioen sistema hau sostengatzeko funtsezkoa omen dela bai parte hartze aktiboa bai babes pasiboa egotea gizartearen aldetik, baina egungo kapitalismo globalizatuaren

garapenak harmonia hau ahuldu egin omen du. Ideia hau pixka bat gehiago sakonduz, historialari britainiarrak dio egungo politika demokratikoak bi aldarri behar omen dituela bizirauteko: alde batetik praktikoa edo ezarritako neurrien eraginkortasuna gizartearen barruan, hau da, subiranotasuna estatuaren baitan egotea, bai nazioartean bai muga barruan; eta bestetik teorikoa edo herritarren fideltasuna/babesa estatuarekiko eta hots, sistema politikoarekiko. Bere ustez bi aldarri hauek globalizazioaren eta honek eragindako dinamiken ondorioz ahuldu egin omen dira:

- Alde batetik, gobernuak indarra galdu duelako, bereziki nazioartean bere eragina murriztu delako, baina baita aktore transnazional berrien agerpenaren ondorioz erabakiak libreki hartzeko geroz eta zailtasun gehiago dituelako ere.
- Bestetik, egun globalizazioak sustatutako norbanakotzeak gizabanakoaren estatuarekiko babesa, defentsa edota onarpena murriztea eragin duelako. Gaur egun jada merkatuak estatuak baino zerbitzu hobegoak eskaintzen ditu kontsumo-gizarte honetan, eta horren ondorioz, biztanleak ez du lehen bezalako premiarik estatuari zerbitzatzeko, urruntze bat eman baita bien artean.

Honenbestez, merkatuak pixkanaka politikaren lekua hartu du, XIX. mendeko subjektu hiritarra XXI.eko kontsumitzaile bilakatuz. Hori dela eta, gobernu ezberdinen erabakiak onartzeko geroz eta erresistentzia handiagoa agertzen hasi da gizartean, eta estatuaren indarra murrizteko mezua geroz eta nabarmenagoa bilakatu da, *laissez faire* doktrinaren baitan zerbitzuak pribatizatzeko aitzakia bezala erabiliz (BAUMAN; 2013).

Bestalde, Joan Subiratsek dio azken krisi ekonomikoak agerian utzi duela Europako erakunde politikoaren ezintasunak inguruan eman diren dinamika ekonomiko eta finantzarioak kontrolatzeko. Krisitik irteteko ezarritako neurri ortodoxoek merkatu finantzario hau lasaitzea helburu izanik, gizartean desberdintasunak nabarmen handitzea eragin dute aplikatutako neurriek, eta ondorioz erakundeekiko mesfidantza sortu da gizartearen zati handi baten baitan (SUBIRATS;2012).

Erakundeek aktore transnazional hauei aurre egiteko dituzten arazoak direla eta, geroz eta biztanle gehiago erabakitzeko bide alternatiboak, ordezkatuak izateko era desberdinak edota bizitza politikoa egituratzeko aldaketak aldarrikatzen hasi dira. Jada, aitzitik jendeak bere kezka egungo sistema demokratikoaren barruan erantzunak bilatuz argitzen bazituen, orain kezka nagusia sistema demokratikoa bera zalantzan jartzera pasa dela argudiatzen du.

Ez da krisi ekonomikoa bakarrik izan pentsamolde aldaketa hau eragin duena, izan ere, gizabanakoak, internet eta teknologiaren iraultza dela medio, informazio dextente maneiatzen baitu gaur egun, bizitza politikoan gehiago murgiltzeko aukera eskaintzen diona. Honi guztiari krisi ekonomikoaren garaiarekin emandako baliabideen asimetria eta politika eta ekosistema ekonomiko globalizatu baten

arteko tirabirak gehitu behar zaizkio, ordezkartzan oinarritutako eredu politiko baten egonkortasuna bermatzea ia ezinezko egiten duena.

Merkatu eta botere ekonomikoak globalizatu diren honetan, politikak lurraldetasunari atxikitua jarraitzen duela azpimarratu da hasiera batean, etengabeko presio ezberdinen eraginez joera berriak erakutsi dituena. Garapen ekonomikoak, kontsumo-gizartearen egituraren oinarritua egonik, indibidualizazio prozesu sakon bat eragin du eta zatiketa instituzionala eman da horren eraginez, estatuak goranzko joera batean indarra galduz (hau da, estatuaz gaindiko erakundeetara), baina baita behera (deszentralizazio prozesuak, eskumen batzuen itzulera...) eta aldeetara ere (partzuergo publiko-privatuak, gestio pribatua zerbitzu publikoen eskaintzan, eta irabazi asmorik gabeko elkarteen geroz eta presentzia indartsuagoa arlo publikoan).

Modu honetan, herritarrek gero eta ahalmen txikiagoa eduki dute erabakietan parte hartu ahal izateko, demokrazia horren babesaren zati handi bat galtzera helduz. Bazterketa soziala areagotu den honetan ere sistema politikoaren beraren baliogabetasun sentimendua handitu da, eta bazterketa politikoa areagotzea eragin du horrek.

Horretaz gain, azken urteetan emandako koiuntura politiko-ekonomikoak egungo sistema politikoak dakarren ordezkartzen funtzioa desegin duela uste du Dieterichek, izan globalizazioak eragindako aldaketengatik edo beste hainbatengatik baina funtsean demokraziaren subiranotasun politikoa jada ez dago herriaren baitan. Sistema politiko honetan herritarrek ezin dute lortutako gehiengoa zuzenean aplikatu, eskumen hau hauteskunderen bitartez aukeratutako ordezkari parlamentariei luzatzen baitaie, zeintzuk herrialdeko erakunde nagusienak okupatzen dituzten. Honenbestez, demokraziaren funtzio nagusia ordezkarien hautaketara bideratuko litzateke, orain arte definitu dugun demokrazia liberalaren ideiarekin bat etorri (DIETERICH) .

Dieterichen ustez, parlamentuaren barruan sortutako jarduerak ez du herritarren nahia ordezkatzeko helburua betetzen, aldiz, botere eta interes desberdinak jokoan jartzen dituen "kotsentsuaren manufaktura" gertatzen dela argudiatzen du. Kotsentsuaren manufaktura hau parlamentua bera botere merkatu batean bilakatzean oinarrituko litzateke, herrialdearen aberastasuna (zerbitzuak, zergak, baliabideak...) hautatuak suertatzen diren elite politikoaren artean banatzeko. Ondorioz, parlamentua alderdikeriaren eszenatoki bilakatuko litzateke, dagokion alderdiaren boterearen handitzea jarraituz elite desberdinen arteko tirabira politikoak izango litzatekeenak oinarrian, eta ustelkeria sistematikoa onartu eta bermatuko lukeena. Parlamentutik kanpo, beste motatako adostasun bat kokatuko litzeke, oligopolioak osatzen dituzten multinazional handiena, elite politiko hauen ustelkeriaz baliatuko liratekeenak erabaki politikoetan eragiteko.

Honenbestez, egungo sistema politikoan ez legoke ez Rousseuk aldarrikatutako subiranotasunik, ezta Montesquieuk berezitako botere banaketarik ere. Hobsbawmek demokraziari egotzen zizkion hiru ezaugarri nagusi horietatik klase sozial txiki batek kontrolatutako zuzenbide estatu bat besterik ez litzateke geratuko.

2.3. Demokrazia eta gizartea: gobernu forma eta ekintza sozial berriak

Historian zehar emandako edozein gertakizun eta prozesu guztiak bezala, aztergai ditugun dinamika eta fenomeno guzti hauek indar mota ezberdinak piztu ditu gizartean, batzuetan norabide amankomun batean mugitu direnak, baina beste batzuetan tentsio momentuak sortu dituztenak. Oro har, sistema politikoarekiko baliogabetasun sentimendua orokortu egin da, estatu-nazioaren baitan egituratutako gobernu forma tradizionalaren babes galerak erakusten duen bezala, baina jarrera honen atzean kausa eta interes ezberdinak aurkitu daitezke. Honekin batera, berriki bizitzen ari garen prozesu politiko ezberdinek gizartean polarizazio bat eman dela erakusten dute, badirudi neoliberalismoaren baitan emandako krisi ekonomikoak eta bere eraginez aurrera eramán diren neurriek sentimendu mota ezberdinak eragin dituela biztanlegoan, kasu aunitzetan alternatiba eta ekintza politiko berrien agerpena sustatu dituztenak.

Alde batetik, Hobsbawmek eta Baumanek globalizazio teknologikoari eta honek sortutako abantaila materialei ematen diote errua gizarte eta gobernu arteko urrunketa azaltzeko orduan, izan ere, merkatuaren agerpenak eta honek sustatutako bizimoduak modernitate berri (likido) baten aurrean kokatzea eragin baitu. Jarrera hau emaitza ekonomiko oparoak pairatu dituzten biztanleengan eman da, gehienbat metropoli handietan kokatzen direnengan eta globalizazioaren efektu positiboak jaso dituztenengan.

Baumanek modernitate likidoa bezala definitzen duen egoera horretan, bizitzaren aspektu guztiak kontsumismoaren sindromea bezala definitzen duen jarreraren bitartez antolatuko lirateke, bizitzaren beraren merkantilizazio bat gauzatuko lukeena. Merkantilizazio honek giza harremanen esfera guztietan eragingo luke: espazio publikoetan, etxean, familian edota inguru pribatuan. Teoria honen arabera, globalizazioak gizartearen indibidualizazio prozesuan sakondu duen honetan sistema politikoarekiko urruntze sistematikoa eragin omen du, estatuarekiko fideltasuna merkaturengatik aldatuz (BAUMAN; 2011).

Modu honetan, bizitzako helburu nagusia gizabanakoaren zorientasuna bermatzea izango litzateke, momentuan bertan sortuko liratekeen beharrak asetuz. Merkatuak sortzen dituen egungo produktuen bizitza ziklo laburraren kontzeptualizazioaz eta hau gure bizimodura egokitzeaz ariko ginateke hizketan. Teoria honen arabera, pertsona ororen jarrera, estrategia multzo, pentsamendu,

arrazoinamendu, balore, aurreiritzi, zorientasunaren ideal, egunerokotasun... azkartasunaren (denbora zikloa), gehiegikeriaren eta xahuketaren arabera egituratuko lirateke.

Beste aldetik, krisi ekonomiko eta politikoak, neoliberalismoaren indartzeak eta horrek sustatutako neurri zorrotzek eragin negatibo nabariak izan ditu gizartearen beste zati batengan, gehienbat aipatu ditugun baliabideen asimetria eta politika eta ekosistema ekonomiko globalizatuaren arteko tirabiren ondorio negatiboak bizitu dituztenengan. Nabarmena izan da sistema politikoarekiko jarrera kritikoaren agerpena Europan, alderdi politiko tradizionalen nagusigoarekin akabatzea lortu baitu honek. Brexitaren garaipenak, Sirizaren gobernuak⁶, edo Frente Nazionalaren mehatxuak⁷, besteak beste, europaren etorkizuna kolokan jartzea eragin dute, integrazioa prozesu berri baten planteamendua bultzatzeaz gain⁸ etorkizuneko estrategia berri bat ebazteko beharrera iritsi baita komunitatea⁹. Testuinguru honetan sortutako mugimendu berriak, izan alderdi politiko gisa, izan giza altxamendu bezala edo protesta moduan eratuak, Mendebaldeko alderdi tradizionalen nagusitasunari alternatiba bat eskaini diote, erakutsiz, aldi berean, kalera atera eta mugitzeko prest dagoen sektore zabal bat bizirik dirauela, eta honekin batera demokrazia eredu justuago eta parte hartzaileago baten aldeko sentimendua indartsua dela.

Pentsamendu kritikoa nagusitu da beraz, biztanleen sektore batengan, bizi duten errealitatea era kritiko batean ulertzeko gaitasuna erakutsi baitu, eta aldaketa sozialerako agente bilakatzeko sinesmena erakutsi baitute. Bereziki nabaria izan da fenomeno hau Ekialde Hurbilean, non 2011tik gauzatutako iraultzek, hasiera batean behintzat, demokrazia eredu berri baten sustapena zuten helburu.

Testuinguru honetan, Europa mailan ezkerak sozialismoaren diskurtsoa berreskuratu duten alderdietan sekulako gorakada bizitu du. Ezkeraren indartze honek ongizate estatuan oinarritutako herrialdearen subiranotasuna mahai ganean jartzea eragin du eta neoliberalismoak bere erakunde bitartez (NDF, BM...) zabaltzen zuen mezuari bide alternatiboa eskaini diote. Honekin batera eskuin muturra ere indartu da, nahiz eta planteamendu ezberdinak plazaratu haustura elementu garrantzitsu bezala agertu da. Gauzak horrela, bai ezkeraldera bai eskuin muturrera egindako birak erakutsi du neoliberalismoak egituratutako sistema politikoak azkenean ez duela gizartearen babes osoa eskuratu.

Horren ondorioz, hainbat alderdi politikok eztabaida prozesu zabalagorako eta parte hartze handiagorako espazioak ireki dituzte. Azpimarragarria da zentzu honetan sozialismo europarrak

⁶ http://www.berria.eus/paperekoa/1484/020/001/2012-06-17/europaren_etorkizuna_jokoan.htm

⁷ https://internacional.elpais.com/internacional/2017/04/22/actualidad/1492888288_300794.html

⁸ https://internacional.elpais.com/internacional/2016/10/14/actualidad/1476449123_095969.html

⁹ https://elpais.com/elpais/2017/03/02/opinion/1488483599_405536.html

eman duen pausua, bereziki Espainian eta Frantzian irekitako barne hauteskunde prozesuen irekierari esker, baita PODEMOS eta SYRIZA bezalako alderdi berrien agerpenak sustatutako parte hartze zuzenaren txertaketa praxis politikoan. Etxekoa alde batera utzi gabe, aipagarria da BILDUK gauzatutako barne egituraketa prozesua beste hainbat alderdi eta eragilerekin batera, hala nola, ERNAI.

Laburbilduz, jarrera berri hauek gizartearen sektore handi batean (Mendebaldean bereziki) aktibazio politikoa eragin duten mugimendu eta adierazpen sorta eragin ditu, orain arte alderdi politiko tradizionalen baitan egituratzen zen demokrazia liberalaren krisia eragin duena.

Testuingurura politikora bueltatuz, aktibazio politiko hau eman zedin, azpimarratu globalizazio teknologikoak abantaila teknikoak sortu dituela demokrazia zuzen eta parte hartzaileago baten praktikak era egokian eman daitezzen. Interneten agerpenak eta erabilerak informazio iturrien ugaritzea eragin du eta honek hezkuntza demokratikoan sakontzeko aukera eman du. Fluxu honek informazio zabalkunde eraginkorra sustatzeko aukera eskaintzen du, kontzientziaren aldetik parte hartze praktika landuagoak bermatzeko hautua errotuz. Beste aldetik, elite politikoaren eta herritarren arteko distantziak murrizteko gai izan dira TICak, politikarien pribilegio estatusarekin akabatu baitu, izan ere, aipatutako informazio iturri ugarietz gain, TIC berrien erabilerak maila anitzeko solasguneak sortzeko aukera eskaintzen du eta honek herritarraren eta politikariaren arteko berdintasunezko harreman batean oinarritutako eztabaida sortzeko aukera ematen du. Laburbilduz, internetek eztabaidarako guneak, pentsamendurako espazioak eta parte hartze zuzena ahalbidetzeko tresnak eskaintzen dituen honetan hezkuntza demokratikoan sakondu du jende askorengan, informazio iturri tradizionalen deszentralizazio bat emanez eta jarrera politiko berrien agerpenerako tokiak irekiz (COLOMBO;2006).

Internetek gune berrien agerpena ahalbidetu du, norbanakoaren autonomia indartzen lagundu dezakeena, baina aldi berean harreman sare berriak eratzeko aukera ere ematen dituena, komunitate berri batzuen agerpena bultzatuz eta ondorioz lurraldetasunean oinarritutako ezaugarrietatik haraindi joango liratekeen nortasun berri batzuen sorketa posible eginez. Modu honetan, gizabanakoaren jarduera tradizionala familia eta estuaren artean bereizten bazen (pribatua eta publikoa), oraingo gazteen artean merkatuaren, eta bereziki TICen agerpenak, harreman sare berriak ireki ditu, eta hauek denek jarrera politikoan bortizki eragin dute.

Orain arteko demokrazia liberalak bere babes pasiboa ate barruko negoziaketetan oinarritzen bazuen, orain gizarte zibilaren geroz eta presentzia handiago bat nabarmentzen da legitimitate horren eskakizunetan, lobbie, sindikatu, patroien handiak bezalako presio talde ezberdinen presentziarik gabe. Informazioaren eskuragarritasunak politikaren izaera pribilegiatua galtzea eragin

du, eta honek erabaki prozesuetan ahotsa edukitzeko eskaria igotzea ekarri du berekin, ordezkari bidezko politikaren praktika zalantzan jartzera ipiniz. Egungo belaunaldiek gobernuetatik haratago dauden erakundeak eta aktore transnazionalak zigortzeko eta kontrolatzeko dauden tresna eskasak kontzientzia dute, aktore ezberdinen arteko konplizitatearen jabe ere izanik, eta horrek azkenaldian Europa mailan tentsio soziala igotzea eta berrikuntza demokratikoaren eskakizunak ugaritzea eragin du hein handi batean (SUBIRATS; 2012).

2.3.2. Parte hartze politikoa

Tentsio sozial horren areagotzetik azaleratu diren berrikuntza demokratikoaren eskakizunak, hein handi batean, ongizate estatua defendatzen duen ideia oinarri duen gizarte behar baten adierazle baino ez dira izan, subiranotasun politiko eta ekonomikoa berreskuratzea helburu duten sentimenduen adierazpena alegia.

Zentzu horretan, Europa mailan adierazpen desberdinak azaleratu dira, herriaren subiranotasuna oinarritzat harturik demokrazia liberalari elementu parte hartzaileagoak txertatu dizkietenak. Lehenengo adierazpena jada "indignados"en protesta uholdeekin zabaldu zen, Ekialde Hurbileko iraultzen testuinguruarekin erlazionatu daitezkeenak, baina baditugu beste adierazpen batzuk ere, hala nola, SYRIZAK grezian 2014 antolatutako errefrenduma, TROIKAREN eskakizunei aurre egiteko, edo urte hauetan agertu diren alderdi politiko berriena, hala nola, 5 izarren mugimendua Italian, PODEMOSena Espainian, Parti de Gauchen gorakada azken hauteskundeetan Frantzian... bestalde, ez ditugu ahaztu behar hainbat hauteskundek utzitako emaitzak Europa mailan (BREXITaren garaipena Fronte Nazionalaren gorakada azkenak) eta zenbait alderdiek ezarritako erreformak eta berregituraketak jendearengana hurbiltzeko (PSOERen barne hauteskundeak azken adierazpena). Ekintza guzti hauek, eredu politikoaren krisi testuinguruan kokatzen diren honetan herritarron parte hartzean oinarritutako sistema baterako aldaketa martxan jarri dela frogatzen dute, horregatik beharrezkoa da demokrazia parte hartzaileari aparteko aipamena egitea.

Parte hartze demokratikoa, beraz, bai norberaren bai komunitatearen bizitzari eragiten dioten erabaki prozesuetan kontzienteki esku hartzera eramaten duen ekintza izango litzateke. Definizio honen arabera, parte hartzeak ekintza kontzientea suposatuko luke, gizartearen aktibazio politikoarekin lotzen baita ideia hau.

Azpimarratzekoa da parte hartzearen eta ekintza kontzientearen artean eratzen den lotura, izan ere, honek errealitatearen ikuspegi kritiko bat edukitzea suposatzen baitu. Bestalde, Obiolsek gauzatzen duen formulazio honetan ekintzak ez du arazo konkretu batekiko erlazioa aurkezten, hau da, talde

bat ez da erabaki konkretu bat hartzeko antolatzen gatazka batekin topo egin duelako, aldiz, honek nolabait jarraikortasun eta aktibazio politiko batekin erlazionatutako praktikak izango lituzke aztergai. Bukatzeko, aipatu komunitate hitza erabiltzerakoan kontzeptu honek errealitate zabalago bat biltzen duela, hau da, ikuspegi global batetik aurkezten da, hiritarren osotasunera hedatzen dena, ez bakarrik bizilagunengana (OBIOLS; 2013).

Kontzeptualizazio honi jarraiki, egileak lau parte hartze mota ezberdintzen ditu:

1. Hauteskundeetako: komunitatearen izenean erabakiak hartzen dituzten ordezkarien hautaketara bideratutako ekintza, izan hau botoaren bitartez edo norbere burua aurkeztuz.
2. Informatzailea: Edozein prozesu motari buruzko erabakiei buruzko informazio zabalkundearekin edo iritzi bilketarekin lotutako ekintzak.
3. Erakundetzea: erabaki prozesuetan eragina izango duen taldeetan izen ematean oinarritutako ekintza.
4. Protesta: Gauzatzen ari den erabaki prozesu bati desadostasuna adieraztera bideratutako ekintza.

2.3.3. Erabakitzeko eskubidea: oinarri juridiko-filosofikoa eta definizioa

Krisi politikoa bizi dugun urte hauetan, sortu diren mugimendu berriek, izan alderdi politiko gisa, izan giza altxamendu bezala edo protesta moduan eratuak, Mendebaldeko alderdi tradizionalen nagusitasunari alternatiba bat eskaini diote, erakutsiz, aldi berean, kalera atera eta mugitzeko prest dagoen sektore zabal bat bizirik dirauela, eta honekin batera demokrazia eredu justuago eta parte hartzaileago baten aldeko sentimendua indartsua dela.

Hala eta guztiz ere, parte hartze demokratikoa sustatu zuten lehenengo adierazpenak ez ditugu hain berriak, erabakitzeko eskubidearekin lotuta agertu baitziren horiek. Bere lehenengo agerpena Kanadan gertatu zen, 1998. urtean Quebecen aurrera eramandako independentzia saiakeran alegia. Lurralde horren burujabetza helburu bazuen ere, eta aurretik sezesio kasu asko kokatzen badira ere, Quebecen aurrera eramandako prozesuak demokraziarentzat iraultzailea izango zen oinarri berri bat finkatu zuen. Lehenengo aldiz, herritarron erabakitzeko eskubidea aldarrikatu eta onartua izatea lortu zuen, gaur egun arte garatzen joan den doktrinarena alegia (De ZAYAS; 2014).

Erabakitzeko eskubidea, beraz, parte hartzearen printzipioarekin lotuta heldu zaigun doktrina politikoa dugu, nazioartean jada adierazpen desberdinak bizitu dituen eta hainbat gobernuen

onespena jaso dituen. Jatorriz, bere lehenengo aldarrikapena Kanadan aurkitzen badugu ere, XX. mendean zehar hedatzen joan den doktrina bat dugu hau (NIKOLAS...; 2016).

Bere jatorria 1945tik aurrera NBEren inguruan egituratutako nazioarteko harremanak bideratzeko sistemaren baitan sortutako Gutunean kokatzen da, non herriek etorkizuna erabakitzeko duten eskubideen aitortza ebatzi zen (kanpo autodeterminazioa), nazioarteko zuzenbidean finkatutako zena, eta beste hainbat itunetara zabalduko zena (Helsinki Azken Aktaren VIII. atala). NBEren 2625. erabakian, (XXV) herriek estatuaren baitan bere garapenerako nahi duen estatus politikoa negoziatzeko eskubidea izan behar dutela azpimarratu zen. Gainera, estatu independente bat bihurtzeko nazioartean zilegitasuna onartuko zitzaiola ebatzi zen, bereziki deskolonizazio prozesuan zeuden herriei eta estatuak ez zioenean herriari bere barne-autodeterminazioa errespetatu.

Barne eta kanpo autodeterminazioan ezarritako paradigma honi 90. hamarkadatik aitzina aplikazio berri bat gehitu zitzaion, Remedial Secession teoriarena hain zuzen. Horren arabera, genozidio eta giza eskubideen urraketa larriak gertatzen ziren eta barne autodeterminazio eskubidearen ukapen kasuak ematen ziren lekuetan zilegitasuna emateko bideratu zen. Hortik aurrera, beraz, zilegitasuna izango da alde bakarreko sezesioa onartzeko argudio nagusia, nahiz eta “de fakto” emandako kasuak ere onartu komunitateak.

Garapen honen hirugarren fase batean, XX. mendearen bukaeran eta bereziki XXI. mendearen hasieran gertatua, autodeterminazioaren paradigmaz azken urrats bat ematen da demokrazia printzipioaren eskutik, izan ere, herrialde batzuk bere jatorriko estatutik bereizteko borondatea azaltzen hasi baitziren eskura zituzten baliabide demokratikoen bidez eta sezesio prozesua herritarren borondate demokratikoan oinarritu zuten. Quebec, Ipar Irlanda, Groenlandia, Eskozia eta Katalunia ditugu, besteak beste, paradigma berri horren bultzatzaileak.

Aipatu berri ditugun herri horiek politikoki autogobernu maila baten bidez egituratuta daude, bere borondatea adierazteko tresna demokratikoak dituztelako (legebiltzar eta gobernu propioa, bertako alderdi politikoak, gizarte antolatu bat, herritarrak ahaldunduak...). Kanadako Auzitegi Gorenaren irizpideen bidez kultura demokratikoa garatzen, erreferendum baten bitartez pertsona bakoitzak emandako erantzuna (aldekoa nahiz kontrakoa) babesten eta sezesio prozesuak nola bideratzen ikasi dugu, lehen aldiz sezesio prozedura bat demokrazia printzipioarekin lotu eta izaera hau aitortzea lortu baita. Ondoren, Kosovoren auziaren ekarpenak, La Hayako Auzitegiaren bitartez, Eskoziako

Independentziari buruzko erreferendumeekin batera, doktrina hau babestu eta zabaldu dute, eta Katalunian ere lanketa gogorra egin da norabide honetan¹⁰.

Orain arte bildutakoa laburbilduz, erabakitze eskubidea herri batek bere burujabetza prozesua abiatzeko XXI. mendean aurkitu dezakeen tresna demokratikoa da, oinarri eta funts sendo batzuk dituen. Hauexek izango lirateke bere ezaugarri nagusienak:

- a. Herritarren baitan antolatutako eskubidea da, ahotsaren bitartez, ordezkari politikoen bidez, erakunde publikoen bidez, hauteskunderen bidez... garatutako borondate demokratikoa.
- b. Bere baitan garatutako prozesuek demokrazia sakontzen dute, herritarren partetik kultura demokratikoan murgiltzea eskatzen baitu ariketak.
- c. Prozedura honetan garatutako bideak garrantzi handia du eta urrats bakoitzaren zilegitasuna printzipio demokratikoaren eskakizunak betetzearen menpe egonen da.
- d. Herritarrak politikoki antolatuta daudenean eta berezko autogobernu erakundeak dituztenean, estatus politikoa aldatzeko borondatea bere ordezkarien eta erakunderen biez adierazteko eta gauzatzeko eskubidea dute.
- e. Bere onarpena nahitaezkoa da estatu demokratiko baten aldetik, nazioarteko zilegitasuna baitu.
- f. Estatuaren jarrera oztopatzaileak normalean ondorio negatiboak eragiten ditu eta sezesioa eskatzen duten herrietan bereizketa posizioak indartuz.

Gauzak horrela, eta GEDk erabilitako irizpideak berriro ere bilduz, *“erabakitze eskubidea lurralde batean kokatuta eta demokratikoki antolatuta dagoen komunitate bateko herritarrek duten eskubidea da, eta horren bidez komunitate horrek bere estatus politikoa eta eredu instituzionala birdefinitzeko borondatea adierazteko eta gauzatzeko ahalmena du prozesu demokratiko baten bidez. Estatus politikoa aldatzeko aukeren artean Estatu independente bat eratzeko posibilitatea ere badago, Estatuarekin sezesio prozedura negoziatu baten bidez”* (NIKOLAS.;2016).

Autodeterminazioaren birformulazio baten aurrean kokatuko ginateke definizio honen arabera, XXI. mendeko eskakizun demokratikoetara egokitzen den eta herrien sezesioan oinarritzen den praktikarena alegia, parte hartze politikoaren eta hortaz kultura demokratikoaren sakontzea gauzatzen duena. Parte hartzearen ikuspuntuari dagokionez, erabakitze eskubideak komunitate politiko erakundetu baten borondatea adierazteko tresna eskaintzen digu, barne autodeterminazioaren muturreko sakontze bat dakarrena. Honenbestez, subjektua autoeratu egiten da, behetik gora doan prozesu demokratikoaren bidez erabaki konkretu bat lantzen baitu. Gainera,

¹⁰ Gai honen harira Vilajosak idaztitako artikulua, kataluniako erreferenduari alde bakarreko ekintza antolatze berme juridiko eta politikoa ematen diona: VILAJOSA, Josep Maria (2014), Principio democrático y justificación constitucional del derecho a decidir, Revista d'estudis autonòmics i federals, 19, 178-210

legearen babesa aldarrikatuz eta printzipio demokratiko bat edukirik izaera demokratikoa duten konstituzioetan bere gauzatzeak ezin du legez kanpokoak izan. Are gehiago, eztabaida politikoan oinarrituta egonik, aukera politiko guztiak berdintasun egoeran jartzen ditu eta baldintza egokiak ezartzen ditu auzia demokratikoki bideratzeko. Horrela, printzipio demokratiko bat denez, berau onartzen dutenen posizio politikoak indartu egiten ditu, eta are garrantzitsuago, herritarron ahalduntzea sustatzen du.

3. Marko didaktikoa

3.1. Teoria kritikoa

Arlo epistemologikoan egindako ekarpenekin bat etorriz, jarraian garatutako atal didaktikoak gizarte zientzien ikuspegi kritikoaren tradizioa lantzen du, deskribatu berri dugun gizartearen egungo egoera hezkuntza sistemarekin harremanean nola jartzen den ikertu nahi baita. Hori dela eta, paradigma sozio-kritikoan oinarritutako teoria biltzen da ondorengo lerroetan, Frankfurteko eskolan XX. mendean garatutako teoria filosofikoa alegia, zeinak, Max Horkheimerren eskutik, zera aldarrikatzen duen:

“una actividad ético-política de orden distinto al explicativo: una reflexión valorativa, en sentido positivo o negativo, de una realidad a cuyo conocimiento el crítico accede por la vía, precisamente de la teoría”(OBIOLS;2013).

Definizio horren arabera, ezinezkoa da edozein gertakizun modu objektiboan analizatzea, ikertzailea errealitate konkretu batetik datorren subjektua baita azken finean. Subjektua den honetan kode eta estandar moral konkretu batzuetan oinarritu ohi ditu bere ekarpenak, izan ere, denbora eta espazioa bera hainbat prozesu historikoen ondorioz giza talde ezberdinek sortutakoaren emaitza baitira, horregatik ezagutza sorkuntza sozial bat dela azpimarratzen ohi du paradigma kritikoak. Horregatik guztiagatik, eskola kritikoak praxian baino teorian jartzen du arreta, analizatu nahi den eta ikertzaileak analisi hori egitean murgilduta dagoen errealitateen arteko harremana aztertuz. Paradigma honen helburua, hortaz, gizartearen eraldaketan oinarritzen da, barneratuta dauzkagun printzipio etiko eta politikoak ikertuz ditugun baloreak azalartzea baita bere egitekoa (CASTAÑEDA;2012).

Frankfurteko eskola dugu ideia hauen bultzatzaile esanguratsuena, lehendabiziko aldiz, metodologia zientifikoaren logikatik eta natur zientzien planteamenduetatik aldenduz pertsonak murgiltzen garen errealitate soziala ulertu eta argitzen saiatu baitzen. Diskurtso eta praktika sozialen atzean ezkutatzen diren ideologiak identifikatzean oinarritzen da bere lana nagusiki.

Errealitate sozial hau oso konplexua eta dinamikoa da, gizakion ekintzak bideratzen dituzten ideologiak eratzten dituen, horregatik teoria kritiko honek pertsonen ekintza eta pentsamenduen artean dauden tentsio eta konexio loturak behatu eta identifikatu nahi ditu.

3.2. Ikastetxea sozializatorako aktore bezala?

Teoria kritikoaren adierazpenei jarraituz, pertsona ororen jardura politikoak ideologia bat dauka atzean, horregatik ideologia hori zein prozesutatik datorren ikertzea funtsezko betebeharra suertatzen da paradigma kritikoarentzat. Obiolsen lanean bildutako adierazpenei jarraiki sozializazio politikoa jardun honetaz arduratuko litzateke, bere ustez hau zera baita:

“se define como un conjunto de procesos de interiorización de la realidad, de identificación con los roles atribuidos a cada persona en la estructura social y de transmisión de la cultura de una generación a otra... no funciona como un simple mecanismo de reproducción de los existente, sino que representa un instrumento importante de reorganización y reinterpretación de la información recibida”

Sozializazio agente bezala, eta gure lanarekin erlazionaturik, ikastetxea funtsezko aktore tradizional bezala egituratu ohi da gizartean. Baina funtsean, egia ote da gure jardura politikoak zuzentzen dituen ideologiaren barneratze hau ikastetxetik datorrela? Edo beste testuinguru batzuk hartu beharko genituzke kontutan? Obiolsen arabera, ikastetxeak, hezkuntza sistemaren funtsezko erakunde bezala, kontzeptu politikoen barneratzean lagundu dezake, baita jardura politikora hedatu daitezkeen praktika ezberdinenean ere. Modu honetan, hainbat faktorek izango lukete eragina sozializazio prozesu honetan, hala nola: ikastetxearen egitura, erabilitako kurrikulu eta materialak, ikaskuntza estrategiak edota irakasle-ikasle arteko harremanak.

Zevinen iritziari men eginez, edukiak baino irakaskuntza prozesuan zehar erabilitako metodologiak garrantzi gehiago dauka, kurrikuluak eta materialek ezagutzen barneratze prozesuan eragina eduki ahal badute ere, ikasleen sinesmen, orientazio eta baloreetan funtsezkoa delako irakasleak betetzen duen papera. Bestalde, liburuek politikaren irudi idealizatua erakusteko ohitura eduki ohi dute, nerabeak adin honetan sistemarekiko jarrera kritiko eta eszeptikoak garatzen dituzten bitartean. Honetaz gain, ikastetxe barruan landutako ikasketa prozesuek jarrera eta praktika demokratiko ezberdinen bereganatzea ekarri dezakete, irakasle-ikasle arteko harremanean oinarritutako ikaskuntza prozesuan oinarrituta egonik praktikaren bidezko balore transmisioa egon daitekeelako.

Laburbilduz, eta ikuspegi kritiko batetik adierazita, hezkuntza sistema osoa, bere eduki, kurrikulu eta inposatutako egitura guztiekin errealitate konkretu baten erreprodukziora bideratutako erakundea

izango litzateke, beraz, ez luke neutraltasunez jokatu, funtzio sozial eta politiko bat edukiko bailuke, botere egitura batzuetara bideratutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eratzea alegia. Aldiz, didaktikaren, eta bereziki gizarte zientzien helburua ikaslearen paper aktiboa bilatzea izan beharko lukeela defendatzen du korrante honek, etorkizunera begira konpromezu sozial eta politikoa eskuratzen lagunduko lukeen jarrera garatzea hain zuzen.

Horregatik guztiagatik, irakaskuntzaren arloan aldaketa agente bezala bete behar luke irakasleak, programazioaren barruan funtsezkoak, larriak eta sozialki beharrezkoak diren planteamenduak txertatuz, ikasleak erreflexio kritikoa egiteko gaitasuna garatzeko. Horretarako gizarte zientzietan aplikatutako metodologiak ekintzan intentzionalitatea ezagutu eta alternatibak bilatu beharko lituzke, eta horretarako funtsezkoa da irakasle-ikasle harremanean sakontzea.

3.3. Irakaskuntza gizarte zientzietan

Frankfurteko eskolak gizartearen teoria kritikoaren baitan ez du hezkuntza arloan proposamen zehatzik gauzaten, nahiz eta bere ekarpenak kontutan harturik hainbat proposamenetan eragin zuzena eduki duen. Horien bidez pentsamendu kritikoaren garapenari eman izan zaio garrantzia, hala nola, arazo sozialei konponbidea emango zioten kurrikulu egoki bat diseinatzen, hezkuntza erakundea osatzen duten pertsonen arteko harreman horizontala eratzen edo irakaskuntza metodologia egokiak planteatzen.

Pagesen arabera, *“la finalidad última de la enseñanza de las ciencias sociales, de la geografía y de la historia ha de ser contra-socializadora, es decir, ha de preparar al alumnado para que construya sus propios conocimientos, se ubique en su mundo y esté preparado para intervenir en él de manera democrática. Se reclama educar la coherencia entre el pensamiento y la acción a fin de garantizar que el protagonismo de los jóvenes ciudadanos y ciudadanas en la construcción del mundo personal y social se realice desde valores alternativos basados en el compromiso, la justicia, la tolerancia y la solidaridad.”* (GONZALEZ;2012)

Kurrikuluaren txertaketari dagokionez, nerabeek hiritartasunean oinarritutako heziketa eduki beharko lukete, baina horrek ikastetxearen alde aurretiko plangintza konkretu bat eskatuko luke, eta horrekin batera kurrikuluaren diseinu berezi bat egotea, gizarte zientzien arloan behar bezala txertatuta, izan azken hau ikasgai baten bidez edo ez.

LOEren legediaren baitan, planteamendu hau erakargarria suerta zitekeen, *Educación para la Ciudadanía* delako ikasgaiaren barruan txertatzeko aukera eskaintzen zuelako, izan ere, Zapateroren gobernuaren baitan onartutako hezkuntza lege organiko honek, besteak beste, hau defendatzen

zuelako: *“La Educación para la Ciudadanía tiene como objetivo favorecer el desarrollo de personas libres e íntegras a través de la consolidación de la autoestima, la dignidad personal, la libertad y la responsabilidad y la formación de futuros ciudadanos con criterio propio, respetuosos, participativos y solidarios, que conozcan sus derechos, asuman sus deberes y desarrollen hábitos cívicos para que puedan ejercer la ciudadanía de forma eficaz y responsable”*. (Real Decreto 1631/2006).

LOMCEren aplikazioaren ondoren ikasgaia eta ondorioz landutako eduki eta gaitasunak galdu egin zirenez, egungo kurrikulu diseinuak zailtasun nabariak erakusten ditu planteatzen ditugun baldintzetan gauzatzeko. Bestalde, Historia eta Geografiaren ikuspuntutik zirrikitu batzuk ireki daitezkeela pentsatu daiteke, izan ere, bertan zera planteatu daiteke: *“crear espacios para la discusión y el análisis de los grandes temas del presente que permitan desarrollar en los alumnos y alumnas conciencia histórica, capacidad de plantear y argumentar sus ideas y opiniones, de matizar con el otro y reconocerlo como un igual, de actuar en función de lo que piensa y siente.... La memoria y la identidad como claves orientadoras para el desarrollo de la capacidad para analizar los relatos y evidencias de distintos contextos sociales, comprender la complejidad de los procesos colectivos y fundamentar opiniones personales sobre lo que ocurre en el mundo; son la base de la construcción de una propuesta de enseñanza de la historia y las ciencias sociales para una formación ciudadana que promueve la participación y el compromiso social”*(GONZALEZ;2012).

Ikasgai honi dagokionez, LOMCEk planteatzen dituen hasierako helburu eta funtzioen arabera, zera azpimarratu dezakegu: DBHn, Geografia eta Historia irakasgaiaren helburua da ikasleek Lehen Hezkuntzan eskuratutako ezagupenetan sakontzea, erraztasunak ematea gertaera, prozesu eta fenomeno sozialak ulertzeko testuinguruaren barnean, aztertzea aldaketa historikoen sorburu diren prozesuak eta segitzea behar diren gaitasunak eskuratzen ulertzeko bizi diren munduaren errealitatea, iraganeko eta oraingo esperientzia kolektiboak, etorkizunerako norabidea eta gizarte bizia garatzen den espazioa. Bertan adierazten denez, fenomeno sozialak ezagutzea funtsezko betebeharra izan beharko luke, besteak beste, nerabeak bizi diren munduaren errealitate eta oraingo esperientzia kolektiboekin erlazionaturiko gaitasunak eskuratu ditzaten, baita etorkizunerako norabidea garatzen laguntzeko ere.

Nola gauzatu daiteke, honenbestez, helburu sorta hau? Aukera oso mugatuak dira, izan ere, LOMCEk ekarritako berrikuntzen artean kurrikuluaren diseinu zehatza baitago, urtez urte ikasleek landu eta barneratu beharreko eduki, ebaluazio irizpide eta ikaskuntzako estandar ebaluagarrien zerrenda zorrotz batekin.

Hala ere, badira bi zirrikitu errealitate politiko eta sozialaren gaitasun kritikoekin jarduteko aukera eskaintzen dituztenak. Alde batetik, 2. Eta 3. DBHn garatutako edukien zerrendan Giza Espazioari

bideratutako bi bloke agertzen dira, bata demografian oinarritua eta bestea jarduera ekonomikoan. Ebaluazio irizpideak aztertuz gero, ikusi daiteke ingurumen arazoekin, populazio banaketarekin, lurralde antolamenduarekin, jarduera ekonomikoekin edota gatazkekin erlazionaturiko irizpideak barneratzea eskatzen den heinean, metodologia konkretu bat erabiliko balitz era bateko hala besteko ikaskuntza prozesua sortu dezakeela. Bestalde, 4. DBHn adierazitako 8. eta 9. blokeek XX eta XXI. mendeko munduan eta globalizazioan sakontzen duten honetan, hainbat prozesu ekonomiko, politiko eta sozialen jardutean lagundu dezakete, baita etorkizunera begira planteatuko jarduera desberdinen planteamenduan ere.

Honenbestez, LOMCEren baitan garatutako kurrikuluaren diseinuak, zurruna badirudi ere, behar bezalako irakaskuntza-ikaskuntza estrategia badu, ikasleari hura inguratzen duen munduan kokatzen, bertan murgiltzen eta hori era demokratiko batean eraldatzen lagunduko luketen gaitasunak eskuratzeko aukera eskaini dezake. Ildo honetan, LOMCEk berak 2013ko abenduaren 10ean argitaratutako 8/2013 Lege Organikoan argi utzi zuen *“Eskolan, ikasketaren helburua da pertsona autonomoak, kritikoak eta nor bere pentsaerarekikoak prestatzea”*.

Gehiago sakondu zitekeen bide honetan, heziketa demokratikoari buruzko beste hainbat ekarpen biltzen baitira Lege honetan, denak pentsamendu kritiko eta autonomoarekin lotuak. Bestalde, kurrikuluaren diseinuko gaitasunen eskuraketara bideratutako artikuluen aipamena egitea falta zaigu, baina bertako lanaren helburua puntu honetan sakontzea ez denez, bakarrik azpimarratu eskola kritikoarentzat irakasleak erabilitako metodologia eta irakaskuntza-estrategia direla premiazkoenak balore, printzipio eta sinesmenak transmititzeko, eta pentsamendu kritikoa garatu nahi badugu, funtsezkoa dela bai kurrikuluaren diseinua, baina baita irakaskuntza metodologiak eta hezkuntza erakundeak ere gizartearen beharretara egokitzea.

3.4. Irakaslearen formakuntza gizarte zientzietan

Listonen definizioari jarraituz, irakaslearen formakuntzak ikasgaiek eskatutako edukien jabetza gainditu eta errealitate sozialean oinarritutako irakaskuntza eta ikaskuntzan oinarritutako jarduerak hartu beharko lituzke kontutan. Definizio honen arabera:

“Docentes capaces de (diseñar) identificar y organizar sus propósitos, de escoger (y diseñar) estrategias pedagógicas o los medios adecuados, que conozcan y comprendan los contenidos que deben enseñar, que comprendan las experiencias sociales y las orientaciones cognitivas de sus alumnos y con quienes pueda contarse para dar buenas razones de sus acciones. Estas justificaciones deben tener en cuenta la actividad docente, las comunidades más amplias de educadores y una comprensión mayor del contexto social y político de la escolarización.”(CASTAÑEDA;2012)

Edukien jabetza finko batean oinarritutako transmisio soilak politikaren, parte hartzearen, demokraziaren, hiritartasunaren... erreproduzio bat besterik ez du sortzen ikasgelaren baitan, eta irakaskuntza-ikaskuntza estrategiak prozesu hauek ematen diren errealitate sozialetatik kanpo kokatzeko arriskua dakarte.

Irakasleak ezagutza eta gaitasuna hiru arlotan eduki behar ditu: ikasgaiarekiko, didaktikarekiko eta gauzatzen dituen praktiken inguruko jarrera erreflexiboarekiko.

1. Lehenengoari dagokionez, edukien jabetzan oinarritzen da gakoa, ikasgaien arteko harremana gauzatzea eta kurrikuluaren beste arlo batzuetan behar bezala egituratzea.
2. Kurrikuluaren diseinua, helburuak, ikaskuntzaren xedeak, metodologia eta ebaluazioa, besteak beste.
3. Gizarte zientziak erakutsi eta ikasteko erabilitako praktikaren inguruko hausnarketari dagokionez, hausnarketa berebiziko jardura bezala ulertzen da berrikuntza diseinuak bultzatzen dituelako.

Praktikumari dagokionez, funtsezkoa da ikasgelan gertatzen denetik abiatutako ikasketa edukitzea, eta hori behaketaren bitartez ematen da (gizarte zientzietako irakasle baten ikasgelako jardunari erreparatuz). Ikusitakoaren teorizazioa (eta esperimentazioa ere bai) abiapuntu bilakatzen da, alternatiba berrituekin eta errealistekin bueltatzeko aukera ematen duelako, geografia eta historia irakasteko bide egingarriagoak marratu daitezten.(GONZALEZ;2012)

Praktikumaren ikerketari erreparatuz gero, hiru faktoreren eragina onartzen dute hainbat adituk: alde batetik arlo pertsonalena (sinesmenak, usteak, nahiak...), bestetik programarena (kurrikulua, hasierako formakuntza teorikoa) eta azkenik alorrarenak (hau bereziki praktiketari). Lehenengo faktoreari dagokionez, arlo pertsonalena alegia, honek harreman handiagoa dauka norberak dituen irudikapen sozialekin ezagutza zientifikoarekin baino, eta hala ere funtsezko faktore bezala onartzen dute askok. Beste biak, aldiz, hezkuntza sistemaren baitan gauzatutako diseinuaren parte badira ere, eman daitekeen ezagutzaren transmisioa irakaskuntza estrategiatik dator, bai praktiketari emandako ikasketa prozesuak baita eduki teorikoa barnerratzeko eramandako plangintzak oinarrian irakaslearen eta ikaslearen arteko harremanak jorratzen baitituzte.

3.5. *Ikasleak eta parte hartzea*

Behin eta berriz jardun dugu irakaskuntzak, ikastetxeak eta irakasleak zer motatako funtzioa bete beharko luketen aipatzen ikasleen hezkuntza (teoriaren kritikoaren ikuspegitik) bideratzerako

orduan. Baina, ikasleak ere bertan zer esanik eduki beharko luke, nahitaez, hura bada ikasketa prozesuaren protagonista nagusia.

Orain arte bildutakoaren arabera, ikasleak irakaslearekin sortutako harremana funtsezkoa suertatzen da balore, sinesmen eta orientazio konkretu batzuen transmisioa ematea nahi bada. Bertan ikaskuntza prozesua oinarritzkoa dela azpimarratu da, ikastetxearen barruan landutako ikasketa prozesuek jarrera eta praktika demokratiko ezberdinen bereganatzea ekarri dezaketelako, eta beraz, praktikaren bidezko balore transmisioa egon daitekeelako. Gainera, kontutan hartuta arlo epistemologikoan landutako edukiak demokraziaren garapenean eredu parte hartzaileago baterako joera defendatu dela, ikaslearen jarduna parte hartze aktibora bideratu beharko litzatekeela defendatzera nator lan honetan (OBIOLS;2013).

Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuen barruan emandako parte hartze ekintza gehienak aztergai dugun kontzeptuarekin zuzenki erlazionatu ohi da, baina ikertzaileek egindako lanak kontutan hartzen baditugu badira beste faktore batzuk bertan eragina edukitzen dutenak, hala nola:

- Ezagutza eta gaitasun politikoak: pertsona orok politikaren funtzionamenduari buruz duen ezagutza. Honen barruan kokatzen dira politikaren eduki teorikoen ezagutza, irabazi eta kostuen identifikazioa, gaitasun politikoak eta tradizio historikoaren nola egunerokoaren ezagutza eta ulermena.
- Eraginkortasun politiko subjektiboa: parte hartze prozesuak berak politikan eragina izango duenaren sinesmena. Bertan bi elementu bereizten dira: alde batetik. Kanpo politikaren eraginkortasuna, sistemak hiritarren eskakizunekiko erakusten duen hautematearekin erlazionatzen dena, eta bestetik, barruko politikaren eraginkortasuna, norbere ekintzaren bitartez eragina eduki ahal izateko bitartekoak eta pisua edukitzearen sinesmena.
- Politikarekiko interesa: politikaren hiru elementu nagusiekiko interesa, hau da, prozesua, emaitza eta egituraren arreta jartzea.
- Politikarekiko asetzia: erregimen politikoari eta bera osatzen duten erakundeei emandako babes eta sinesmen maila.
- Betebehar zentzua: Eskubideak bermatzen dizkion komunitate baten partaide izateagatik hiritarrari egokitu zaizkion betebeharekiko ulermena.

Kontzeptualizazio honetatik abiatuta, eta teoria kritikoaren ikuspegia aintzat hartuz, parte hartzeak ikaslearen nolabaiteko burujabetza bilatzen du, burujabetza Marx eta Gramsciren ideia bezala hartuta: *“solo cuando el real hombre individual recoge en sí al ciudadano abstracto, y como hombre individual se convierte social en su vida empírica, en su trabajo individual, en sus relaciones individuales, sólo cuando el hombre reconoce y organiza como fuerzas sociales sus forces propias y*

por eso no se separa más la fuerza social en forma de fuerza política, sólo entonces se cumple la emancipación humana”(OBIOLS;2013).

Zentzu honetan, parte hartzeak ikasleak egunerokotasunean bizitzen duen sistemak ezarritako balore, jarrera, sinesmen, moralitate... multzoekiko berdintasunezko botere harreman bat mantentzea izango litzateke. Ideia Sistemak, nagusigo kulturala duen honetan, sozializazio prozesu ororen abiapuntuzko eta oinarritzko elementu bezala jokatzeko du, goian aipatutako faktore multzo guzti horiek moldeatuz. Horregatik, menpekotasunezko harreman honekin apurtu eta hori gainditzea izango litzateke burujabetza lortzea. Gramsciren hegemonia kulturalaren ideiarekin lotuko litzateke hain zuzen ere gure kontzeptua.

Hala eta guztiz ere, egungo nerabeek ez dute burujabetza honetan oinarritutako kultura demokratiko parte hartzaileago bat bereganatuko irakaskuntza estrategiak ez badu horretarako biderik eratzeko. Irakasle bakoitzak bere modelo didaktikoaren bitartez bideratzen dituen praktikak funtsezkoak dira Gizarte Zientzien arloan ikaskuntza prozesu egokia bideratu nahi bada, izan ere, edukiak, irakaskuntza-ikaskuntza estrategiak, irakaslearen papera, ebaluazio irizpideak eta ikasgelako giroaren gestioa baldintzatzen baititu.

Quinqueren adierazpenak bilduz, eredu didaktiko batek *“vertebra una determinada manera de enfocar el trabajo en el aula, en el que sus componentes se articulan, se influyen mutuamente y se interrelacionan”*, baina honekin batera praktikak ere diskurtso propio baten erabilera dakarrenez eredu didaktiko honetan ere pisu handia dauka.

3.6. Irudikapen sozialak eta demokrazia

3.6.1. Irudikapen sozialak

Teoria kritikoaren ikuspuntuaren arabera, didaktikaren helburua irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen bidez lortutako ezagutzaren arazoak ikertu, ezagutu eta baloratzean datza, arazo horiei konponbidea aurkitu eta lanean jarduten duten irakasleak baita etorkizunean paper hau jokatu dutenak gaitasun didaktiko egokietan trebatu daitezeko, jarrera kritiko eta erreflexiboak eskuratuz. Gizarte Zientzien arloko irakaslearen formakuntzan, gaitasun hauek irudikapen sozialen, klaseko diseinuaren eta hasierako praktiken bitartez zehazten omen da hoberen.

Teoria kritikoak pertsona orok dauzkan irudikapen sozialak ikertzea funtsezkoa dela defendatzen duen honetan, ekintza desberdinak bideratzen dituzten ideologiak argitzen saiatzea funtsezkoa ikusten du. Modu honetan, gizarte zientziak aztertzen ditugunean, hiritartasunean edo kultura

demokratikoan oinarritutako hezkuntzaren atzean kokatzen diren ikuskera, balore eta sinesmenak argitzen saiatuko lirateke irudikapen sozialak.

Moscoviciren lehen planteamenduak bilduz, irudikapen sozialak pertsonen dituzten ideiak aztertzeke erabilitako teknika eta tresna multzoa dira. Pertsonen gertakizun edo kategoria batekiko dituzten irudi eta ideien multzoa prozesu kognitibo konplexu batzuetatik datoz, eta testuinguruak, baloreek, ideologiak... eragiten duten hauen eraketan (GONZALEZ;2013). Definizio honetan sakonduz, Txilen gai honen harira egindako ikerketa batean bertako egileek zera aldarrikatzen zuten: *“las representaciones sociales refieren a formas de conocimiento elaboradas y compartidas al interior de un grupo que participe de prácticas sociales comunes y que tiene una determinada inserción en la estructura social”*(CARDENAS...;2007).

Beraz, irudikapen sozialak talde baten barruan ematen diren praktika sozial amankomunen ondorioz eskuratzen diren ezagutza konplexuak badira, horiek zer esana handia eduki dezakete gure errealitatearekiko interpretazioak ikertzerako orduan, talde hauek euren praktikak burutzen dituzten testuinguru jarraikortasun eta aldaketa prozesu ezberdinek finkatzen dutelako.

3.6.2. Demokraziaren irudikapenak

Kultura politikoari dagokionez, irudikapen sozialak testuinguru historiko konkretu batean garatzen diren diskurtsoak analizatzeko tresna paregabea suertatzen zaigu, errealitatearen ikuspegi hegemoniko eta homogeneoa gailentzen den edo haustura konkreturen bat dagoen edo ez behatzeko oso baliagarria dena (.

Zentzu honetan, historikoak direla baieztatu dezakegu, momentu konkretu batean talde edo klase sozial batek hura inguratzen duen errealitatearekiko kosmobisioaren adierazpena alegia. Modu honetan, jarrera, estereotipo eta aurreiritziak analizatzeko metodologia dugunez, errotik aldatzen ari den gizarte baten aurrean gauden edo ez ikertzeko balio digu kultura politikoaren ikuspuntutik analizatzen badugu (DIAZ; 2005).

Horren harira, irudikapen sozialek hezkuntza sistemaren barruan betetako papera argitzea komeniko litzateke. Lehenik eta behin aipatu eskolak balore demokratikoen heziketan betetzen duen papera, izan ere, teoria kritikoak kontrol sozialaren ideia ematen dela defendatzen baitu, sistemaren birsortzea bultzatuko lukeena, botere harreman konkretu baten jarraitasuna eta *status quo*ak irautea sustatzen duena. Zentzu honetan, azpimarratu dugu balore eta kontzeptu jakin batzuk helarazteko interesa egon daitekeela hezkuntza sistemaren barruan, eta honek demokraziaren eta hiritartasunaren definizio interesatua eta ideala gauzatzen duela askotan (BARRIGA...; 2017).

Bestalde, analisi politikorako tresna bezala ere agertu daiteke, gehienbat gazteen ikuspuntutik, hauek izaten baitira tentsio eta aldaketa sozialen adierazle nagusienak. Hortaz, gazteen diskurtsoan oinarritutako lanak kontutan hartzen baditugu, ikus daiteke horien eta politikaren harremanaren lotura ikertuz gizartean jarraipen edo haustura momentuak gailentzen diren edo ez. Bide honetan, egokia litzateke egungo krisi politikoaren testuinguruan demokraziarekiko atxikimendu maila neurtzea, honi lotitako aurreiritzi eta ideien analisiekin batera, ikusteko ea estatuarekiko eta honenbestez gobernu formekiko konfiantza maila zein puntutan kokatzen den, eta honekin batera parte hartze kanalekiko dagoen pertzepzioa analizatzea (CARDENAS...;2007).

Beraz, demokraziarekin erlasionaturiko irudikapen sozialetan oinarritutako ikerketa batek egungo gizarteak, nerabeen eskutik politikarekiko (sistema politikoa, gobernu formak...) erakusten duen jarrera analizatzeko tresna paregabea dugula baieztatu dezakegu, kultura eta balore hegemonikoekiko dagoen lotura aztertuz aldatzen ari den edo sistema birsortzeko borondatea duen gizarte baten aurrean gauden ikusteko alega.

4. Marko Psikopedagogikoa

Gaur egungo hezkuntza ereduak konstruktibismoa du ardatz moduan ezarrita, duela urte asko gure kurrikuluan txertatuz. J.I. Pozok eta beste hainbat autoreek dioten bezala, estrategia hau kurrikuluaren diseinuan ildo hau integratzean datza, izan ere, *“los alumnos construyen el conocimiento científico a partir de sus ideas y representaciones previas-más o menos intuitivas, más o menos erróneas, más o menos esquemáticas- sobre la realidad a la que se refiere dicho conocimiento. La enseñanza de la Ciencia consiste pues, fundamentalmente, en promover un cambio en dichas ideas y representaciones con el fin de acercarlas progresivamente al entramado conceptual y metodológico del conocimiento científico tal y como aparece estructurado momento actual”*. (AABB;1991)

Autore hauen kezka nagusiak ezagutza nola sortzen den, ezagutza berriak nola barneratzen diren, inteligentzia nola garatzen den, eta hau guztia zein mekanismok errazten duen argitzean oinarritzen da.

Konstruktibismoaren barruan bi ildo nagusi bereizi ditzakegu: alde batetik garaikidea den aurretiko ideien ezagutza defendatzen duen ikuspuntua (*ideas previas*), eta bestetik Piageten eragiketa formalen kontzeptua. Jean Piaget eskola kognitiboaren sortzailea dugu eta ikusten dugun bezala kezka hauetan murgilduta ibili zen. Ezagutzaren barneratzeari dagokionez, berak zioen hau ez zela ez objektuan ezta gudan aurkitzen, pertsona bakoitzak modu aktiboan parte hartzen duen eraikitze prozesu baten emaitzan baten bitartez baizik.

Konstruktibismoaren ildo honetan finkaturik, aipatu ezagutza pertsona eta ingurunearen artean gertatzen den interakzioaren ondorioz sortzen dela, beraz, subjektuak ekintza eraikitzaile bat burutu behar duela. Modu honetan, ezagutza berria lehendik ditugun egitura mentaletan barneratzen da, oreka-desoreka prozesu baten bidez. Ezagutza edo informazio berria, aurreko eskemekin kontraesanean jartzen da, eta adaptazio mekanismoari esker, egitura berriak sortzen ditu, lehendik zituenak aldatuz, honela ezagutzara iritsiz eta garapena bultzatuz.

Ezagutzaren kontzeptu honekin batera, Piagetek garapenaren etapa edo estadioak zehaztu zituen, eta etapa bakoitzean egitura intelektual mota bat bereizi zituen: estadio sensorio-motorra (0-2); eragiketa-aurreko estadioa (2-7); eragiketa konkretuen estadioa (7-11 urte) eta eragiketa formalak (12 urtetik gora).

Nerabezaroan, Operazio formalak (12-16 urte) agertzen dira. Piageten ildotik ikasi duten autoreek uste dute egungo gizarte honetan, gure garapenaren goi etapan arrazoitze hipotetiko-deduktiboa sortzen dugula, ez haurrengan ezta atzerapen bat dutenengan eman daitekeen garapena. Bere agerpena 11-12 urte bitartean kokatzen dute, non heldutasunaren faktore neurologikoetan egongo litzatekeen oinarrituta alde batetik, eta ingurune sozial baten jardueretan bestetik, zeinak garapen pertsonala azkartu edo moteldu dezakeen, baldintza historiko, kultural eta hezkuntzako arabera.

5. Marko metodologikoa

5.1. Testuinguru akademikoa

Lan honetan jorratzen den ikerketa bigarren hezkuntzako irakaskuntzaren formakuntza prozesuan emandako praktikumaldian burututako ekarpen baten emaitza baino ez da. Nafarroako Unibertsitate publikoak eskaintzen duen formakuntza prozesu honetan praktikuma eduki teorikoak sakondu ondoren eman beharreko ezinbesteko egitekoa da, non ikasleak, 6 asteko egonaldi baten bidez ikasgela baten zuzeneko jarduera behatu eta bertan parte hartu beharko duen.

Praktikum honek suposatzen dituen xehetasunetan gehiegi sartu gabe bakarrik aipatu egonaldia 3 etapa nagusitan bereizten dituela, nolabait ikaslearen ikaskuntza prozesua gradualki hobetzeko helburua duena eta irakaslearen jardunera ahalik eta gehien hurbiltzea bilatzen duena.

- Lehenengo etapa batean (2 aste inguru), irakaslearekin (azken finean tutorea) kontaktuan jarri eta haren irakaskuntza metodologia barneratzea helburu duen behaketa funtzioetara bideratzen da egitekoa.
- Behin irakasle/tutorearen metodologia eta ikasgelaren funtzionamendua aztertuta, pixkanakako integrazio prozesu bat ematen da ikaslearen partetik, aurretik tutorearekin

finkatutako edukien, ariketen edo ebaluazioen irakaskuntza prozesuan gero eta gehiago murgilduz. Askotan ekarpen pertsonal txiki batzuk egiteko aukera zabaltzen du etapa honek, beti ere irakasleak finkatutako bide orriaren barruan.

- Azkenik, ikasleak berrikuntza proiektu bat martxan jartzeko aukera izaten du, era autonomoan diseinatu eta praktikara eraman beharreko proiektua hain zuzen. Atal honetan ikasleak aukera zabalak ditu mota ezberdinetako proiektuak egiteko, honek ezpaitu nahitaez tutoreak finkatutako programazioaren bide orria jarraitu behar, beti ere azken honen onarpena jasotzen badu.

Beraz, lan honetako ikerketak helburu eta ideia propioak jarraitzen baditu ere, zabalagoa den proiektu baten emaitza dela azpimarratzea komeni da. Garrantzitsua da datu hau aipatzea, burutu dudana metodologiarentzat funtsezkoak diren ezaugarri batzuk eskuratzen lagundu baitit honek:

- Alde batetik, Gizarte Zientzietako irakasleak ikasturte honetan zein aurrekoetan jorratutako bide orria alde aurretik eta lehen eskutik ezagutzeko aukera eduki dut. Honi esker jakin izan dut, besteak beste, hiritartasunarekin eta demokraziarekin loturiko edukiak 2. DBHn lantzen direla, eta eduki horiek Santillana argitaletxean landutako materialaren interpretazio zorrotz baten oinarritutako metodologia baten bidez eman direla. Material honetan erakusten den edukiak demokraziaren irudi idealizatu eta zurrun bat erakusten du, teoria kritikoak aldarrikatzen dituen ideietatik urrun.
- Beste aldetik, 6 astetako egonaldi baten bukaeran landu zenez, ikaslearekin gertuko harreman bat finkatzea lortu ahal izan nuen, eta honek asko lagundu zidan ariketa nola egin azaltzerako orduan. Jarraian ikusiko den bezala, hasiera batean orria era autonomoan egin zezaten helburu nuen, baina ikusirik kezka eta ezjakintasun asko zegoela gehiago murgiltzea erabaki nuen, eta seguruenik hau ez zen posible izan ikasleekin gertuko harremanik eduki izan ezpanu.

Praktikumaren egonaldi hau, eta honenbestez ikerketa, Nafarroako Malerrekako bailaran kokatzen den Mendaur B.H.In landu zen, Doneztebeko udalerrian. Ikastetxeak bailara osoko nerabeak biltzen ditu, 150-200 ikasle inguru ikasturteko. Orokorrean, Malerrekako bailara menditsua da, lautada eta ordoki estu batzuetan banatutako herri txiki batzuek osatua. Bertako bizimoduari dagokionez, euskara da kulturaren adierazle nagusia, eta hau lurrarekin estuki atxikitua dago, belaunaldiz belaunaldi transmititu eta mantendu den bizimodua hain zuzen. Hortaz, bertako jendearen jarrera herrikoa eta tradizioari lotutakoa izan ohi da. Bestalde, ezaugarri sozioekonomikoei dagokienez, bertako jendeak ezaugarri homogeenak erakusten ditu hein handi batean, familia nuklearrari lotutako etxebizitza baten jabe izan ohi dira gehienak. Hala ere, ekonomiak izan du eraginik azken 20-25 urte hauetan, nekazaritzan oinarritutako sektore baten nagusitasunetik industriaren eta

zerbitzuen agerpenera aldatu baita ekonomiaren pisua, eta garraio bideen hobekuntzak Iruñarekiko harremana asko hobetu eta ugaritu du.

Ikasleei dagokienez, 2. 3. eta 4. DBHko nerabeekin lanean aritzeko aukera eduki badut ere, ikerketa azken bi ikasturte hauetara mugatzea erabaki nuen. Ikasturte bakoitzak bi ikasgela ditu, (A eta B izenez bereiztuak), eta aniztasunerako plan bat dauka 3. mailak (AB izena duena), ikasgai konkretu batzuk biltzen dituena. Oro har, ikasgela banaketak errendimendu akademikoa baino klaseko giroa hoberen mantendu dezakeen ikasleen bereizketa du helburu, hortaz akademiko emaitzak ez dira oso desberdinak.

5.2. Ikerketaren helburuak

Aztergai dugun ikerketa hau izatez inkesta bat da, mota ezberdinetako galdera batzuen konbinaketa lantzen dituen ariketa sortaz osatua dagoelako. Erantzun egoki bat bilatzen dituzten galderak eduki arren, bere egitekoa ez da erantzun zuzenak eta okerrak bilatzea, erantzun hauen atzean dauden ideien interpretazioa bilatzea baizik (horregatik inkestaren definizioa).

Denetara 6 ariketa ezberdintzen dira, batzuk irekiak direnak eta ikaslearen erreflexioa eskatzen dutenak, eta beste batzuk itxiak, ikasleen ideiak eta ezagutzak jokoan jartzen dituztenak. Gaitegiari dagokionez, demokraziaren eta errealitate politikoaren inguruko hainbat aspektu lantzen dira, egungo nerabeek euren aurreiritzi, ideia eta sinesmenak ahalik eta modu zabalenean adierazteko moduan aurkeztuak.

Inkesta honen helburua, modu laburrean adierazita, egungo gazteek politikarekiko duten harremana ikertzea izango litzateke. Krisi politiko baten testuinguruan kokatzen garen honetan, nerabeek gobernu formekiko adierazten dituzten iritzi eta ideiak Grasmcik kultura nagusitasuna (edo hegemonikoa) definitzen duenaren menpekota den ala urruntasuna/haustura erakusten duten ikertu nahi da, ikusteko ea egia ote den errotik aldatzen ari den gizarte baten aurrean gauden ala sistema erreproduzitzeko prozesuaren baitan kokatzen garen.

Horretarako, lehenik eta behin, demokraziarekiko dituzten ideiak zeintzuk diren aztertu nahi ditut. Krisiaren harira, egungo gizarteak gobernu formarekiko duten harremana ikertzean oinarrituko litzateke egitekoa. Gobernu formarekiko dagoen harremana diot formaltasunez baina funtsean demokrazia liberalaren babes maila esan nahi dut, gizartea aipatzen dudanean dudarik gabe nerabeak erdigunean jartzen ditudan bezala. Gazteak izan ohi dira gizarte gehienetan aldaketa motorrik indartsuena, horregatik, sistemak haustura elementuak erakusten dituen horiek baieztatze modurik zuzenena hauengan erreparatzea izan ohi dela defendatzen dut. Bestalde, haustura elementurik identifikatuz gero, urruntze mota hau parte hartzearekin zein puntutaraino

erlazionatzen den argitzea gustatuko litzaidake, arlo epistemologikoan noranzko honetan mugitzen ari den eraldaketa prozesu bat dagoela defendatu baitut.

Beste aldetik, nerabe hauek errealitate politikoarekiko duten harremana nondik datorren zehaztu nahiko nuke. Parte hartzearen ikuspuntutik funtsezkoa da gizartea ahaldundua egotea, eta bereziki gazteak, eta horretarako lehendabiziko pausua euren inguruan eragiten duten erabakietan gehiago inplikatzeko izango litzateke, ezagutza politiko handiago bat ekarriko lukeena. Krisi politikoan bete betean murgildu ondoren, egungo nerabeek fenomeno honekiko duten interesa handia suertatu den ala eszeptikoa eta urruna izaten jarraitzen duen ikusi nahiko nuke. Honekin batera, harreman eta inplikazio maila hau zein testuingurutik datozen jakitea oso baliagarria da hainbat informazio mota eman ditzakelako: inplikazio maila neurtzeko balio du, sistema erreproduzitzera bideratutako informazio iturri tradizionalen eragina jasotzen duten ala ez ikusi daiteke, familiaren eragina zein puntutaraino ematen den aztertu, eta honekin batera inguru honetako sentimenduak islatzen dituzten ala ez jakin.

5.3. Ikerketaren sortze prozesua

5.3.1. Demokraziarekiko aurreiritzi eta ideiak

Esan bezala, bi jarduera mota bereizten dira: alde batetik, lehenengo bi ariketetan nerabeek demokraziarekiko dituzten ideiei erreparatu nahi zaie, eta bide batez, demokrazia parte hartzaileari buruzko dituzten irizpideak aztertu.

Lehendabiziko ariketan krisi politikoak, lanean aipatutako ildoari jarraituz, nerabeengan eraginik eduki duen edo ez aztertu nahi izan dut. Laneko ideiak berriro bilduz, aitzitik jendeak bere kezkek egungo sistema politikoaren barruan erantzunak bilatuz argitzen bazituen, orain kezka nagusia sistema bera zalantzan jartzera pasa dela argudiatu dut. Arazoa ez legoke beraz, sistema politikoaren barruan, gizarte eta sistema politikoaren arteko harremanean baizik. Honenbestez, urruntze hau zer elementuren baitan antolatzen den ikertzen saiatu naiz.

Horretarako errubrika bat osatu da, non demokraziarekin lotutako hainbat ideia bertan islatuta agertzen diren, adostasun maila ezberdinekin. Egungo Mendebaldeko demokrazia liberala oinarritzat hartuta, eredu politiko hau jomugan jarri nahi izan dut, bere baitan biltzen dituen hainbat elementu bakarka azaleratuz, ikusteko zein kontzepturekin lotzen duten demokraziaren ideia.

Bestalde, kontzeptu hauek hobeto ulertu daitezzen, adibide bat erabili dut kasu guztietarako, ikus dezaten nola gauzatuko litzatekeen aztertutako ideia kasu bakoitzean. Horretarako, ikasleen baitan

egituratutako skate parke baten eraikuntzaz hitz egin dut, irizpide bakoitzaren arabera era desberdinean antolatuko litzatekeena.

- Lehenengoan demokrazia ordezkariaren ideiarekin lotu nahi izan da, hau da, agintaria izendatzeko eskubidea aldarrikatzen da, baina honek gero erabakiak bere gisa hartu ditzake. Honekin nolabait parte hartze politikoa hautaketa prozesura mugatzen den sistema politiko batekin lotzen duten edo ez jakin nahi izan dut. Skate parkearen adibidea emanaz, azpimarratu dut: “ikasgelako ordezkariak izango lukete parke hau eraikitzeke erabakiaren eskumena, gehiengoaren babesaren bidez izendatua izanik ikasleen babesaren edukiko baitzuen”.
- Bigarrean demokrazia parte hartze politikorekin lotu nahi izan dut, izan hau erreferendum baten antolaketan oinarritua (demokrazia zuzena) edo parte hartze prozesu batek eskatzen dituen pausu guztien betetzean (kontsentsuaren bilaketa). Parte hartze sistema eta eredu ezberdinak zehaztea baino, herritarren ahalduak azpimarratu nahi izan nahi dut bertan, herritarrok dagozkigun erabakietan eskumen gehiago eduki beharko genituzkeen hala ez baloratzea interesatzen zait. Skatearen adibideari jarraituz, parkearen eraikuntza ikasle guztien artean erabakiko litzatekeela aipatu diet.
- Hirugarrenean herri demokraziaren ideia jarri dut jomugan. Herri demokrazia alderdi politiko bakarraren baitan antolatutako sistema politikoarekin lotutako erregimena izango litzateke gure kasuan, Estatuari estuki lotuta egongo zena, ez dituen eskubide indibidualak baliatzen (adierazpen askatasuna, prentsa...), berdintasun materiala baino (soziala, ekonomikoa, kulturala...). Herri demokraziak, pluralismoa ezeztatu edo mugatzen badu ere, behetik gora doazen hautaketa eta erabakitze prozesuak eduki ditzake, baina ariketa honetarako elementu hau ezabatzea erabaki dut, berdintasunaren (materiala) ideiaz jabetu nahi izan baitut, demokrazia liberalaren hautaketa prozesuarekin talkan jarritz, ikusteko ze irizpide den garrantzitsuago nerabeentzat. Modu honetan, gure adibidearentzat ordezkariaren ideia berreskuratu dut, baina kasu honetan hau ez zen hautatua izanen, nahiz eta skate parkearen eraikitzea talde guztiaren onuraren arabera erabakitzen duen.
- Azkenik, zuzenbide estatua jarri dut mahai gainean. Bertan ikusi nahi izan dut ea legediak herritarren nahiaren gainetik egon beharko lukeen edo ez. Skatearen adibidera bueltatuz, ikasgelan denak parkea eraikitzearen alde badaude ere, arauak honen eraikuntza debekatzeko dutenez ezin da ezer egin, nahiz eta oztoporik ez izan inorentzat.

Ondorengo taulan demokraziarekin lotutako hainbat ideia agertzen dira. Adierazi X batekin zure adostasun maila ideia bakoitzarentzat.

	Erabat ados	Ados	Ez nago ziur	Desados	Erabat desados
Komunitate baten barruan, gehiengoaren bozkaketaren bitartez boterea eskuratzen duenak, besteen izenean erabakiak libreki hartzeko eskubidea du.					
komunitateak hartu behar dituen erabakiak jendartean plazaratzen dira, eta denek erabakitzen dute jarraitu beharreko bidea.					
Talde batek hautaketa sistema errespetatu gabe hartzen du boterea, baina gero herritarren interesean oinarritutako erabakiak hartzen ditu.					
Indarrean dagoen legediak erraten du erabaki bat hartzea bidezkoa den edo ez, erabaki honek herritarren borondatea islatzen ez badu ere.					

Lehenengo galderaren planteamendu formala

Jarraian, galdera ireki batzuk jartzea pentsatu dut, ikasleek euren iritzia modu askean zabaldu dezaten, eta bide batez ikusteko nola harremantzen duten aurreko ariketan landutako demokraziaren ideia parte hartzearekin. Eredu politiko honetara mugatu nahi izan ditut galderak, izan ere, nire lana demokraziaren arlo honetan oinarritu nahi baitut. Hiru galdera konkretu plazaratu ditut, mundu mailan eman diren kasu praktiko batzuekin, eta ez diet inongo irizpiderik eman nahi izan, nahiz eta batzuen zalantza zela medio galderak modu argian azaldu behar izan ditudan, bereziki hirugarrenean.

Azkenik, aipatu ariketa hau osatzeko ideia Eki argialetxeak 2015en argitaratutako 3. DBHko Gizarte Zientzietako eskola-liburutik etorri zaidala, politikari bideratutako unitate didaktiko interesgarri bat baitu, parte hartzeari pisu berezi bat ematen diona. Hauxe izan da beraz ariketaren diseinua:

Jarraian, demokraziaren hainbat aspektu jomugan jarri dituen adibide batzuk agertzen dira. Erabaki hauek demokrazian sakontzen dute? Arrazoitu zure erantzuna.

1. Suediako ordezkariak bozkatzeko adina 16 urtera jaisteko proposamena egin dute.

Lehenengo galderan bozkatze adinaren afera jarri dut paperean. Ikusi nahi dut ea egungo sistema politikoan nerabeak behar bezala identifikatuta eta errespetatuak sentitzen diren eta ea nola ikusten duten beraien burua egoera honen aurrean.

2. Grezian bozkatzea derrigorrezkoa izan beharko lukeela proposatu zuen ordezkari batek.

Bigarren galderan derrigorrezko bozkatze jarri dut eztabaidan. Agintarien erabakiek guztion bizitzan eragiten dutenez, helburua kontu horietan zalantzan jartzea da, ikusteko ea beraientzat ez ote den bidezkoa denok erabaki behar izatea.

3. Lituania, Ekialde Hurbiletik etorritako immigrazio uholdea zela eta, ordezkariak proposatu zuen erreferenduma egitea herritarrei immigrazio-kuotak ezartzeko aukeraz galdetzeko.

Hirugarren galderan erreferendumarekiko zer jarrera mota erakusten duten ikertu nahi izan dut. Nerabeentzat erabakiak denon artean adostu beharko genituzkeen edo agintarien eskuetan egon beharko litzatekeen aukeratzea izango litzateke gakoa. Inguruan ematen ari diren prozesuak direla eta (Eskoziako berriki, Katalunian gaur egun...), aspektu hau nola ikusten duten argitzeko balio dit, baina helburu nagusia gizartearen aktibazio politikoa zein demokrazia parte hartzailearen praktikaren zabalkundea zein puntutaraino aldarrikatu/babesten duten aztertzea da. Erreferendumaren ideia immigrazio kuotekin lotzea erabaki dut, ez dutelako kontzeptu hau abertzaletasunarekin nahastea nahi, parte hartze politikoa aztertu nahi baitut eta ez independentzia.

5.3.2. Errealitate politikorekiko hurbilketa

Ondorengo bi ariketetan errealitatearekiko duten ezagutza maila ikertu nahi izan dut, arlo praktikoa alegia. Horretarako, lehenik eta behin, lotura bidezko jarduera txiki bat egitea planteatzen duen eskema bat jorratu dut 6 motatako 3 kategoria bereiztuz. Eki argialetxeak diseinatutako beste jarduera batean oinarritu nahiz, oso antzeko ariketa planteatzen duena, baina kasu honetan aldaketa txiki batzuk gehitu dizkiot, baina kasu honetan erabakitzeko eskubidea baino (funtsean Ekik planteatzen duena) ideia politiko orokorrak eta pertsonaia politiko ezberdinak aurkeztu ditut.

3. Ondorengo taulan gure eguneroko bizitzan erabakiak hartzen dituzten politikari ezberdinen irudiak agertzen dira, haiek defendatzen dituzten alderdiaren logoarekin batera. Honetaz gain, pertsonaia/aderdi politiko bakoitzari lotutako aldarrikapenak agertzen dira, baina hau guztia desordenatuta dago. Lotu itzazu pertsonaia bakoitza dagokion alderdiarekin eta defendatuko lukeen aldarrikapenarekin.



Pablo Iglesias



Iñigo Urkullu



Arnaldo Otegi









Susana Díaz



Esperanza Agirre



Uxue Barkos

	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Herriaren independentzia Euskal langileriaren defentsa 		<ul style="list-style-type: none"> Larrialdi egoeran bizi direnen aldeko defentsa Ongizate estatuaren indartzea Espainiako errealitate plurinazionalaren aitortza 		<ul style="list-style-type: none"> Espainiako Konstituzioaren (lege gorenak) defendatza ile sutua Espainiaren batasuna 		<ul style="list-style-type: none"> Nafarroako foruen defentsa Euskararen sustapena 		<ul style="list-style-type: none"> Espainiako errealitate plurinazionalaren aitortza Konstituzioarekiko obediencia 		<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko nazioetasunaren aldarrikapena Autogobernuaren sakontzea, baina Espainiaren barruan
---	--	---	--	---	--	--	--	---	--	---	---

Politikariak, dagozkien alderdi politikoak eta alderdi hauen ideia nagusienak era desordenatuan aurkeztuz, ikasleak hauek identifikatu eta lotzea izango du helburu. Bestalde, ikerketa lanean sakontzeko asmoz, aurkeztutako politikarien artean aukeraketa berezi batzuk egin ditut; alde batetik pertsonaia ezagun (edo mediatiko) eta ez hain ezagunen arteko bereizketa bat egin dut, errealitatearekiko hurbilketa hori komunikabideen bidez gauzatzen den edo ez jakiteko. Ezagunen artean Esperanza Aguirre, Pablo Iglesias eta Arnaldo Otegi bereiztu ditut, izan ere, hauek oihartzun zabala eduki baitute azken hilabeteetan gure inguruko berrietan. Beste aldetik, lurraldetasunarekiko atxikimendua aztertu arren, politikari euskaldun eta espainiarren arteko bereizketa egin dut. Bai alde batetik bai bestetik politikariak esanguratsuak suerta daitezen ahalegindu naiz, eta irizpideak ahalik eta sinplifikatuen ematen, jardun hau zailegia geratu ez zedin. Hauexek dira aurkeztutako irizpideak:

- Pablo Iglesias Podemoseko idazkari nagusia, Espainiaren izaera plurinazionalarekin, ongizate estatuaren eta politika sozialen aldeko ideiekin lotu dut.
- Iñigo Urkullu (EAJ) Euskadiko lehendakaria Euskadiko naziotasunaren aldarrikapenarekin eta autogobernuarekin erlazionatu dut.
- Arnaldo Otegi, EH Bilduko idazkari nagusia Euskal Herriaren independentziarekin eta sozialismoarekin lotu ditut (langileriaren defentsa zehatzagoak izateko).
- Susana Diaz, Andaluziako lehendakaria eta PSOEko lurralde horretako PSOEko idazkari nagusia, espainiaren izaera plurinazionalarekin lotzea erabaki dut, baina konstituzioarekiko obediencia azpimarratuz.
- Esperanza Aguirre, Madrilgo Komunitateko lehendakari ohia (PPren baitan) Espainiaren batasunaren eta konstituzioaren bermatzaile bezala definitu dut.
- Uxue Barkos, Nafarroako lehendakaria Geroa Bairekin, Nafarroako foruen defentsarekin eta euskararen sustapenarekin harremanu dut.

Azkenik, eta ariketa honekin lotuta, galdera batzuk egitea pentsatu dut, adierazitako ezagutza eta jasotako informazio iturriak sakonago aztertzeko. Aurreko ariketekin lotutako bi galdera plazaratu ditut, egiaztatzeko erakutsi duten ezagutza maila burutu duten jardunarekin bat datorrela. Hirugarren galderan, aldiz, informazioa nondik jasotzen duten jakiteko aitzakiarekin zein testuingurutan mugitzen diren ikertu dezaket, honekin gainera inplikazio maila neurtu ahal izan dut eta honekin erlazionatutako beste ondorio batzuk atera.

4. Inkesta hau burutu aurretik, ezagutzen zenuen pertsonaia horietako bat? Zein?

5. Alderdi Politikoren batek egindako aldarrikapena identifikatzea erraza suertatu zaizu? Zein konkretuki?

6. Adierazi nola edukitzen duzun zure inguruko errealitate politikoaren berri (aukera bat baino gehiago hautatu daitezke):

Etxean telebista ikusten zaudenean	Familiarekin hizketan	Lagunen artean eztabaidatzen
Ikastetxean	Zure kabuz (egunkaria irakurtzen, galdetuz....)	Beste iturri batzuk (adierazi)

6. Emaizten analisia

6.1. Demokraziaren ideia zahar-berriak

Emaizten analisiari ekinez, ikasturte bakoitza bi ikasgeletan bereizten zela aipatu dudan arren, emaitzak islatzeko orduan ez dut faktore hau kontutan hartu nahi izan, erantzunek desbideraketa txikia erakutsi dutenez honetan gehiegi sakontzea alferrikakoa iruditu zaidalako. Bestalde, ariketa egiterako orduan kurtsoa eta sexua adierazi behar zirenez, azken faktore hau kontutan hartzea erabaki dut, nerabeen artean sexuaren araberako irizpide ezberdintasunik baden ikuste aldera.

Analisi hauek egiterako orduan, metodo ezberdinak asmatu ditut erantzunei ahalik eta zuku gehiena ateratzeko asmoz. Errubrikari dagokion ariketan, adibidez, emaitza guztiak ikasturtearen eta sexuaren arabera bereizteaz gain, hauek guztiak ehunekoetan ematen ahalegindu naiz, islatutako erantzunen benetako pisua adierazteko helburuarekin. Honetaz gain, ehunekoak ateraz formula berri batzuk planteatzeko parada eduki ahal izan dut, gela bakoitzean ateratako emaitzen benetako pisua neurtzeko adierazgailu bat sortuz, eta irizpide bakoitza bestearekin alderatuz.

KONTZEPTUEN LOTURA 3.MAILA		ERABAT ADOS	ADOS	EZ NAGO ZIUR	DESADOS	ERABAT DESADOS	EMAITZAK EHUNekoETAN					
ORDEZKARITZA	mutil	2	4	0	2	7	13%	27%	0%	13%	47%	100%
	neska	0	1	0	6	8	0%	7%	0%	40%	53%	100%
	denetara	2	5	-	8	15	7%	17%	0%	27%	50%	100%
PARTE HARTZEA	mutil	9	3	1	1	1	60%	20%	7%	7%	7%	100%
	neska	10	2	1	2	0	67%	13%	7%	13%	0%	100%
	denetara	19	5	2	3	1	63%	17%	7%	10%	3%	100%
BERDINTASUNA	mutil	1	1	2	5	6	7%	7%	13%	33%	40%	100%
	neska	0	1	8	4	2	0%	7%	53%	27%	13%	100%
	denetara	1	2	10	9	8	3%	7%	33%	30%	27%	100%
ZUZENBIDEA	mutil	5	4	1	3	2	33%	27%	7%	20%	13%	100%
	neska	2	3	3	3	4	13%	20%	20%	20%	27%	100%
	denetara	7	7	4	6	6	23%	23%	13%	20%	20%	100%
KONTZEPTUEN LOTURA 4.MAILA		ERABAT ADOS	ADOS	EZ NAGO ZIUR	DESADOS	ERABAT DESADOS	EMAITZAK EHUNekoETAN					
ORDEZKARITZA	mutil	1	4	1	7	4	6%	24%	6%	41%	24%	100%
	neska	0	1	8	11	3	0%	4%	35%	48%	13%	100%
	denetara	1	5	9	18	7	3%	13%	23%	45%	18%	100%
PARTE HARTZEA	mutil	13	4	0	0	0	76%	24%	0%	0%	0%	100%
	neska	12	10	1	0	0	52%	43%	4%	0%	0%	100%
	denetara	25	14	1	0	0	63%	35%	3%	0%	0%	100%
BERDINTASUNA	mutil	2	4	7	4	0	12%	24%	41%	24%	0%	100%
	neska	1	5	9	5	3	4%	22%	39%	22%	13%	100%
	denetara	3	9	16	9	3	8%	23%	40%	23%	8%	100%
ZUZENBIDEA	mutil	0	3	2	7	5	0%	18%	12%	41%	29%	100%
	neska	1	2	5	8	7	4%	9%	22%	35%	30%	100%
	denetara	1	5	7	15	12	3%	13%	18%	38%	30%	100%

Taula hauek emandako emaitza guztiak ehunekoetan adierazteko helburuarekin diseinatu ditut, izan ere, ikasle kopurua ezpaita berdin mantentzen ikasgela guztietan, hortaz emaitza errealak baino adierazten duten balioa ikertzeko premia ikusi dut. 3. mailari dagokionez, guztira 30 ikasleren laginak ikertzen dira, horietako 15 mutilenak izanik eta beste horrenbeste neskenak. 4. mailan, aldiz, guztira 40 ikasleren laginak erregistratu dira, horietako 17 mutilenak eta 23 neskenak. Hauexek izan dira emandako emaitzak irizpide bakoitzaren arabera:

- Ordezkaritzari dagokionez, urte eta sexu araberako desbideraketa oso txikia izanik, homogeneotasun bat igarri daiteke ikasleek erakutsitako erantzunetan. 3. mailan %77ak aurkako iritzia azaldu du demokraziak eduki beharreko osagai honi dagokionez, 4.enean zenbateko hau %63an mantendu den heinean. Esanguratsua da 3. mailan neska eta mutilen artean azaldu den desberdintasuna aurkakotasun honetan, nesken %93k ezpaitu ikusi loturarik ordezkartzaren eta demokraziaren artean, mutilen kasuan %60ra jaisten den bitartean, %40a alde agertu baita. 4. mailan balantza hau nahiko orekatu mantendu da, baina berriro ere mutilen kopuru esanguratsu batek (%30ak) aldeko jarrera erakutsi du, nesken kopuru berdina zalantzan geratu diren bitartean (%23).

- Parte hartzeari dagokionez, irizpide honetan ez da dudarik egon, batz besterik %90k aldeko jarrera erakutsi baitu. 3. mailan agian pixka bat bajuxeagoa izan da pisua, bai neska eta bai mutilen aldetik %80an kokatu baita joera hau, 4. Mailan mutilen %100k eta neskeen %95 alde egin duten bitartean. Esan daiteke, beraz, kontsentsua badagoela demokrazia parte hartzearekin erlazionatzerako orduan.
- Nire ustez guztietan interpretatzeko zailena berdintasunaren kontzeptua izan da. Badirudi zalantzak eta ideia kontrajarriak atera direla bertatik, erantzunak aldakorak baitira sexu eta adinaren arabera. 3. mailatik hasita, mutilen artean kontsentsu bat badago, %73ak kontrako erantzuna eman baitu, nesken partetik jarrera hau %40ra jaisten den bitartean, %53ak zalantzak erakutsiz alde edo kontra egiterako orduan. 4. mailan ere joera ez da mantentzen neska eta mutilengan, nahiz eta desbideraketa txikiagoa izan. Erantzunak era parekatuan banatu dira, alde eta kontrako erantzunak %31an eman baitira, %38an zalantzan geratu den bitartean. Mutilen kasuan, aldeko irizpidea nagusiagoa izan da (%36) neskena baino (%26), eta alderantziz gertatu da kontrakoari dagokionean (%24 eta 35).
- Azkenik, zuzenbideari lotutako demokraziaren ideia aztertuz, laginek oso erantzun interesgarriak erakutsi dituzte: mutilei dagokienez, 3. mailan %60k alde egin du, urte bat zaharragoak diren sexu bereko lagunak %70ean kontratan azaldu diren bitartean. Mutilen artean, beraz, desbideraketa oso handia da. Nesken kasuan, aldiz, 4. mailan ikaskideen joera mantendu dutela erran dezakegu, %68a kontratan agertu baita, 3. mailan erantzunen pisua nahiko orekatu mantendu den bitartean (%46alde %40 kontra). Laburbilduz, 3. mailan aldeko joera esanguratsua da 4. mailako erantzunekin alderatzen badugu, eta azken hauek aldiz kontrako sentimendua adierazten dute era nagusiago batean.

Taula honek, berez emandako erantzun guztiak neurtu eta alderatu daitezkeen balioetan emateko helburua du, baina aurreko parrafoetan ikusi daitezkeen modura, joera batzuen berri emateko adierazgarri bat izan daiteke. Hala eta guztiz ere, analisi horiek oso azalekoak suertatzen dira, horregatik, ildo honetan sakontze aldera, taula berri batzuk asmatu ditut, erantzun horien atzean dauden benetako ideiak ezpaitira guztiz islatuta agertzen orain arte ikertutakoan.

Bigarren taula bat osatu da egiteko honentzat, aurrekoan adierazitako balioak beste era batean aurkezten dituen eta joerak era argiagoan erakusten dituen. Horretarako bi formula eratu ditut: lehenik eta behin, puntuaketa portzental bat osatu nahi izan dut, irizpide bakoitzarentzat balio bat sortuz aukeratutako adostasun maila bakoitzarentzat puntuaketa ezberdinak bereiztuz. 5 adostasun kategoria ezberdin daudenez, kategoria bakoitzari pisu bat ematea erabaki dut, horrela adostasun maila altuenak, alegia, erabat ados egoteak, 1 puntuko balioa edukiko luke, adostasun maila hau


aldendu hala pisu hau 0,25 jaitsiz. Kezka egon daiteke zalantzan agertutako jarrerarekin, izan ere, nik 0,5 puntuko balioa eskaini baitiot joera honi, baino funtsean ezjakintasuna adierazi dezake. Kontutan hartuta adibide baten bidez azaldutako ariketa dugula hau, kontzeptua garbi geratu delaren ideia defendatzen dut, hortaz, jarrera neutral batekin identifikatu dut erantzuna. Formula hau oso baliagarria suertatu da erantzun bakoitzaren benetako pisua aztertzeko, aldeko eta kontrako jarrerak bi kategoria ezberdin adierazten dituzten honetan erantzunaren benetako izaera zein den identifikatzeko balio baitu. .

Ordezkaritza	mutil	37%	17,9%
	neska	15%	8,3%
	denetara	26%	13,4%
Parte hartzea	mutil	80%	39,0%
	neska	83%	46,3%
	denetara	82%	42,4%
Berdintasuna	mutil	27%	13,0%
	neska	38%	21,3%
	denetara	33%	16,9%
Zuzenbidea	mutil	62%	30,1%
	neska	43%	24,1%
	denetara	53%	27,3%

Ordezkaritza	mutil	37%	17,0%
	neska	33%	16,7%
	denetara	34%	16,8%
Parte hartzea	mutil	94%	43,5%
	neska	87%	44,4%
	denetara	90%	44,0%
Berdintasuna	mutil	56%	25,9%
	neska	46%	23,3%
	denetara	50%	24,5%
Zuzenbidea	mutil	29%	13,6%
	neska	30%	15,6%
	denetara	30%	14,7%

Bestalde, aipatu puntuaketa hau osatzerako orduan, erabilitako formula emaitza bakoitzaren ehunekoan oinarritu dela, mutil, neska eta nerabe kopuru ezberdineko gelak genituen aztergai, datu homogeneoak eta baliokideak ematen ahalegindu naiz, ondoren egindako irizpide harremanak identifikatzeko funtsezkoa bainuen baliokidetasun hau mantentzea. Horrela, ezkerreko taulak 3. mailako erantzunak biltzen ditu, eta eskuinekoak 4. nekoak, sexuaren eta kopuru osoaren arabera datuekin berezituak egonik biak. Lehenengo zenbatekoek irizpide bakoitzak jasotako babesaren benetako pisua neurtzen du, goian azaldutako balio portzentualaren arabera finkatua. Bigarren zerrendan agertzen diren zenbatekoek kopuru hauek bildu eta elkarrekin alderatuz eskuratzen duten balio erlatiboa adierazten dute.

Beraz, eta datuen analisei berriro ekinez, demokraziaren benetako osaketa modu honetan egituratuko litzateke:



Demokraziaren irizpiderik garrantzitsuena dudarik gabe parte hartzea da, %40tik gorako balioa suposatzen baitu bai ikasturte batentzat bai bestearentzat. Gainera, ordezkariak biltzen duen pisuarekin alderatuz gero, ikusi daiteke gazteek rol aktiboago bat bilatzen dutela sistema politikoaren baitan.

Kontutan hartzen badugu ordezkariak eta zuzenbideak egungo sistema politikoaren elementurik adierazgarrienak ditugula, demokrazia liberalaren eta hortaz sistema politikoaren babesa maila baxuetan kokatzen dela esatera ausartuko nintzateke. Hala ere, ariketa hau burutzerako orduan erabilitako adibideak jokatu duen paper baldintzatzailea azpimarratzeko modukoa da, izan ere, kontzeptu hauek ez dira errubrikan azaltzen diren bezain sinpleak, eta batzuetan irizpideak elkarren aurka borrokan aurkeztuta agertzen direnez interpretazio hauek analisi sakonago batzuk beharko lituzketela aitortu beharra dago.

Haatik, adibidearen pisu baldintzatzailea aitortuta ere lortutako emaitza baxuak oso adierazgarriak izaten jarraitzen dutela uste dut. Zuzenbidearen balioari erreparatuz, legea vs herritarren nahia jokoan jartzerakoan bigarren aukera honi eman diote garrantzi handiagoa. Egia da Skate parke baten eraikuntzak ez duela tentsio sozialerako arrazoi handirik sortzen, baina kontutan hartzen badugu zuzenbideak legeen aplikazioa suposatzen duela, eta honek gizarte batean ordena (eta beraz segurtasuna) mantentzeko oinarrizko elementu bilakatzen duela, gizarte baten joko arauak finkatzen dituzenez, adibidean gerta daitekeen debekuaren atzean arrazoi bat egon daitekeela pentsatzera eramán dezake, horregatik funtsezkoa iruditu zait nerabeek herriaren nahia arau hauen gainetik jartzea.

Honekin batera, ordezkariaren ahultasunak badu beste interpretazio baterako parada: denon artean aukeratuta ordezkari baten hala denen artean adostutako erabaki baten ondorioz eraiki behar

balitz gure parkea, dudarik gabe bigarren aukerak irabaziko luke. Ez bakarrik aukera honek demokraziaren %50ko balioa suposatzen duelako, sexu eta ikasturte araberako erantzunetan bildutako balio portzentualari erreparatzen badiogu ere bere babesaren %80tik gorako mailatan kokatzen delako. Berritoki ere adibidearen eragina aipatzea beharrezkoa da, atzean faktore baldintzatzaile batzuk ezkutatu ditzakeelako. Besteak beste, ordezkariak ikasgeletan betetzen duen funtzioa ikertzea funtsezkoa gertatzen da, honek ikasturte osoan zehar betetzen dituen egitekoak zein erabakitan oinarritzen diren jakiteko (kontsentsuan, gehiengoan, autonomia handiago batean, agian ez du egitekorik...). Adibideari jarraituz, parkearen eraikuntza bere eskuetan uzteak ikasleen iritzietan eragin dezake ordezkariaren benetako paperarekin nahasten badute jarduna, hala ere, azpimarratu beharra dago ez garelako klaseko dinamikari dagokion proiektu bati buruz hizketan, herri osoarentzat dagokion erabaki baten hautaketari buruz baizik. Horregatik, oso azpimarragarria irudituko zait ikasleek erabaki hauetan parte hartzeko prestutasuna erakustea, nolabait rol aktiboago bat erakusten dutenaren adierazgarri dela iruditzen baitzait..

Azkenik, eta denetan interesgarriena baina aldi berean interpretatzeko zailena berdintasunaren kontzeptua izan da. Zailtasun hau bi arrazoiengatik ematen da nire ustez: alde batetik ikasleen ehuneko garrantzitsu batek erakutsitako zalantzak bere burua ariketan kokatzerako orduan garbi adierazten du berdintasunaren ideia ez dagoela guztiz barneratua gizartean edo behintzat gazteen artean. Bestalde, zalantza hauek erakustea adierazgarria izan daiteke ariketan (eta hor zailtasunerako bigarren arrazoiak) berdintasunaren ideia hau (herritarren hobe behararen moduan adierazia), hautaketa sistemarekin talkan aurkezten bada. Zuzenbidearen adibidean bezala, herritarren interesa jokoan hartzen da, baina kasu honetan hautaketa sistemaren aurka jarrita. Lehenengo kasuan herriaren borondatea legearen gaineratik jarri dute, baina bigarren ariketa honetan zalantzak erakutsi dituzte. Nire ustez honek bi esanahi ditu: batetik, hautaketa sistema barneratuta dagoela gizartean, egun dugun parte hartzeko aukera bakarrenetarikoa dugunez bere legitimitatea eredu politiko honen baitan berebizikoa delako sistema propioarentzat; bestetik, balore kolektiboak guztiz barneratzeke daudela gure gizartearen baitan, indibidualismoaren ideia gailentzen dela oro har. Bigarren adierazpen honekin erlazionaturik, herriaren borondatea legearen gaineratik jarri dutela defendatu badut, nik uste honek gobernu formetikiko konfiantza galera bat erakusten duela, krisi politikoaren baitan legeek ez dutelako eraginkortasunez jokatu ustelkeriaren aurka. Bestalde, agintari politikoen papera mahai gainean jarri bada ere, hautaketa prozedura, esan bezala, parte hartzera bideratzen dugun ariketa bakarra dugunez, horrek agintariak guk aukeratu ditugularen sentimendua adierazten du, prozesuari legitimitate handia ematen diona. Esanguratsua da, arrazoi hauen harira, berdintasunak erakusten duen desberdintasuna lehenengo bi tauletan. 3. mailan %10 baten

onarpena jaso duen bitartean 4. mailan %31koa izan baita adin desberdintasunarekin etorri daitekeen kontzientzia garapenaren isla izan daitekeena.

Laburbilduz, lehenengo ariketan agertutako erantzunek demokrazia eredu parte hartzaileago baten beharra aldarrikatzen dute, gizartearen rol aktiboago bat eskatzen dutenak. Gobernu eta praktika instituzionalen aurkako sentimendu bat jabetzen dela esango nuke, legearen babesa jasotzen duten agintarietan islatua agertzen dena. Zentzu honetan, ikasleek sistema politikoaren berrikuntza baino gobernu forma berrien aldeko joera erakusten dutela uste dut, herritarren borondatea eta erabakiak kontutan hartuko lituzkeen batena hain zuzen.

6.2. Nerabeak eta parte hartzea

Dudarik gabe, lehenengo ariketak zerbait erakutsi badu gazteek demokrazia eta parte hartzearen artean ezartzen duten lotura estua dela izan da. Baina, benetan dakite gazte hauek parte hartzearen atzean dagoen inplikazioa zertan oinarritzen den edo zein ondorio mota ekarri ditzaken eredu parte hartzaileago bat sustatuko zuen garapen politiko baten txertatzea? Galdera horiei erantzuteko asmoz sortu nuen ariketa hau, metodologiaren azaltzen den modura parte hartzearen elementu ezberdinei buruz iritzia eskatuz, horrela egungo gazteen kultura politikoren interpretazioan sakondu eta eredu hau noraino finkatua dagoen aztertzeko parada eduki ahal izateko.

Lehenengo galderarekin hasiz, bozkatzeko adina 18 urtetatik 16ra jaisteari buruz galdetzen duena, honen kontrako jarrera aldekoari nagusitu zaio alde handiarekin (%68 vs %28) ni ikasturteetan. Arrazoiak erreparatzeko orduan bi izan dira nagusitu diren ideiak: alde batetik, egungo gazteek ez dute menperatzen errealitate politikoa, beraz ez dute behar haina gaitasunik; bestetik, gazteak direnez burua oraindik beste gai batzuetan dute, hortaz ez dute ardura nahikorik ikusten erantzukizun maila honetarako. Erantzunen artean adierazpen mota hauek nabarmentzen dira: “18 urtera arte jende askok ez dituelako ideiak garbi”, “16 ureterekin ez duzulako hainbertzeko burua jakiteko gauza hauetaz” eta antzeko irizpideekin errepikatzen den ideia.

Bestalde, alde egin dutenen artean kontrako arrazoiak nabarmendu dira, hau da, gazteak prest eta inplikatzeko behararekin ikusten dituztenak egon dira, oso kopuru urriagoan izan badira ere (%10 inguruk ideia hau defendatu dute). Adibidieen artean adierazpen mota hauek ezebrdintzen dira: “ondo baldi badakite politikari buruz aukera guzia dute bozkatzeko”, “16 urtetan pertsona batzuri politika interesatu eta bozkatzeko burua dutelako”.

Bigarren galderan, non bozkatzekak derrigorrezko izaera eduki beharko lukeen hala ez zalantzan jartzen zen, berriro ere kontrako jarrera aldekoari nagusitu zaio, banaketa berdintsuarekin (%65 vs

33). Erantzun honen banaketa aztertzerako orduan, bi jarrera bereizten direla konturatu naiz: alde batetik eskubide indibidualak aldarrikatzen dituztenen gehiengo bat dago, ez bozkatzeko eskubidea aldarrikatzen duena, eta bestetik gizartearen inplikazioa eskatzen dutenen beste talde bat, ez hain era nabarmenean bada ere. Jarrera hauen atzean bi diskurtso talkan agertzen zaizkigu: eskubide indibidualen defendatzaileekin batera jende askoren inplikazio eta ezagutza falta salatu da, hauen paper politikoa dudatan jartzen zutela, horregatik ez bozkatzearen ideia era nabarmenagoan nagusitu da. Honekin batera gobernuekiko fede eskasa azaldu dute batzuk, alde batera edo bestera eginda ere honek eraginkortasunik edukiko ez duela diote. “jendeak eskubidea izan behar duelako bozkatzeko edo ez”, “denek bozkatzea ez zait normala iduitzen”, “pertsona batzuek ez dutelako inorengan sinisten” edo “...ez daudelako interesatuak” izan dira erabilitako argudio nagusienak.

Beste aldetik, alde agertu direnen artean herriaren borondatea hobeki islatzeko beharra aldarrikatu da, horretarako jendea gehiago inplikatu beharko litzatekeela eskatuz, gainera bozkatzek suposatzen dituen epe ertain luzeko ondorioetaz ohartarazi dute askok. “horrela erabaki bat ateko zen herriak aukeratutakoa” “nire ustez demokratikoa da”, “erabakiek denoi eragiten digutelako” nabarmentzen dira adibideen artean.

Hirugarren galderan, aldiz, gehiengoa erreferendumaren alde agertu da (%70 inguru) eta gainera arrazoi berdinak eman dituzte euren jarrera justifikatzeko. Gazte talde honen ustez, erabaki garrantzitsuek, herritarroi eragiten diguten heinean, herriaren borondatean oinarritu beharko lukete, beraz, erreferendumak bezalako praktikek herritarren iritzia islatzeko tresna egoki bezala ikusten dute. Egon dira pausu bat haratago joan diren erantzunak, esanez horrelako praktikek demokrazian sakontzen dutela, eta beste batzuk are urrunago joan direnak (nire harridurarako) eta erreferendumaren eraginkortasuna zalantzan jarri dutenak, bai gizartearen izaera indibidualista salatuz bai gobernu formen konpromezu falta herritarrekin, baina esan bezala gehiengoa praktika mota hauek ezartzearen alde agertu da. “azken finean herritarrei perjudikatzen dielako onerako edo txarrerako, orduan erabakia herriak hartu beharko luke”, “demokrazian sakontzen du, herritarrei galdetzen diotelako” “herritarroi eragiten digulako” izan dira, besteak beste adibide aipagarrienak.

Beraz, parte hartzeari dagokionez, gazteek praktika honen sustapen bat aldarrikatu badute errubrikan osatutako ariketan, hedatze hau funtsean herritarron iritzia kontutan hartzean oinarrituko litzateke, hau da, agintarien funtzio batzuk herritarroi eskuordetzea. Aldiz, ez dute sistema hau eraldatzeko interes handirik erakusten, ezpaitute ikusten beharrezkoa gizartearen inplikazio politikoan sakontzea. Nire ustez bi faktore nagusitzen dira hemen: alde batetik ikasleek arrazoinamendu indibidualista erakusten dute, hau da, eskubide politikoak norbanakoaren eskubideekin identifikatzen dituzte hein handi batean, hau da, ez dira gai ikusteko norberaren ekintzak komunitatearentzat suposatzen duena, gizartearen ikuspegi berekoa erakusten dute nire

ustez; bestetik, lehenengo ariketako analisiekin bat etorritz, nerabe hauen jarrera ez litzateke hainbeste sistema politikoaren aurka agertuko, gobernu formen aurka baizik. Erantzun batzuek gobernuetik erakutsitako fede eskasaz gain, aldarrikatutako aldaketa bakarra herritarren iritzia kontutan hartzea izan denez nire ustez honek ez du hainbeste berrikuntza politikoa eskatzen herriaren borondatea errespetatzea baizik.

6.3. Nerabeak eta errealitate politikoa: gizartearen eraldaketa motorra?

Jarraian agertzen diren analisiak metodologiaren atalean deskribatutako 3, 4, 5 eta 6 galderei dagozkie. Bertan, egungo gazteek politikari buruz erakutsitako ezagutzak eta informazio iturriak jartzen dira mahai gainean.

Emandako erantzunei erreparatuz, egungo gazteek zalantza asko dituztela islatzen du inkestak, askok ezpaitute lotura hauek era egokian egiten jakin izan. Pablo Iglesiasen irudiarekin hasiz, orokorrean bere aurpegia eta defendatzen duen alderdia (PODEMOS) identifikatzea oso erraza egin zaie ikasleei, 70 ikasletik 67tik horrela adierazi baitute ariketan. Modu bertsuan islatua agertu da erantzuna inkestan egindako 4. ariketan, non alde zuzenetik pertsonaia hauetako bat ezagutzen ote zuten galdetu zaienean, 4. mailan bere izena %95ak aipatu dutenean. 3. mailan ere altua mantendu da zenbateko hau (%70 inguru), eta bi kasuetan kopuru esanguratsu bat PODEMOS politika sozialekin eta ongizate estatuarekin identifikatzeko gai izan dira. Hala ere, azken honetan kezka handiagoak erakutsi dituzte ikasleek, errealitate plurinazionalaren aitortza hau konstituzioaren baitan ulertzen baitute batzuek, PSOEk aldarrikatutakoaren harira. Ongi erantzun dutenen kopurua gehiengoa izaten jarraitu badu ere, desbideraketa honek alderdiaren ezagutza baxuago bat dagoela adierazten du, eta interpretazio honen ildoa kokatzen dira 5. ariketan emandako erantzunak, ikasleen heren batek bakarrik zekiela ziurtasunez zein zen ideologia egokia galdera plazaratu baino lehen.

Iñigo Urkulluri dagokionez, hemen ere egoki erantzun dutenen kopurua gehiengoa izan da, baina ez Pablo Iglesiasekin bezain era garbian. EAJren ildotik desbideratu direnak lehendakaria Geroa Bairen barruan, Podemosenean eta Bildurenean identifikatu dute. Aldarrikapenak aztertzen egon ondoren, konturatu naiz askok, bai aukera egokia bai desbideratua egin dutenek, Urkullu ezkerreko politikekin eta abertzaletasunarekin lotzen dutela. EAJ eta Euskal Herriren independentzia nahiz langileriaren defentsaren arteko lotura ia EAJ eta bere ideologiaren arteko loturen kopuru berdinekoa da, eta kasu batzuetan Nafarroako foruen defentsarekin ere nahastu izan da. Ez dira faltatu Podemosen politika sozialekin erlazionatzen dituzten erantzunak, hauek kopuru baxuan izan badira ere. Honek, eta 4 eta 5. ariketetan plazaratutako galderak argitzen dute gazteek ehuneko handi batean Urkullu Euskal

Herrian eta EAJren baitan kokatzen dakitela baina gero ez dakitela identifikatzen defendatutako neurri motak.

Arnaldo Otegiarekin, aldiz, zalantzak erabatekoak dira. Era guztietako emaitzak aurkitu daitezke, baina joerarik aurkitu behar bagenu, lehenengoa bere burua non kokatzen ez dakitelaren ideia izango litzateke. 3. mailakoekin hasita, laginek ia %50ean Geroa Bairen barruan kokatzen dute Bilduko idazkari nagusia, 4. mailan oker emandako erantzunen kopurua %50tik gorakoa den bitartean. Nahaste handia dago Otegiaren figurarekin, Geroa Baikoa dela uste baitute aunitzek, beste kopuru garrantzitsu batek EAJn kokatzen duten bitartean. Hala eta guztiz ere, ideologiari dagokionez, bi dira nagusitzen diren ildoak: bata Nafarroako foruen defentsan eta euskararen sustapenean oinarritua eta bestea Euskal Herriaren independentzian. EAJren ideiekin identifikatu dutenak urriagoak izan dira alderdia aukeratu dutenak baino. Oso kasu bitxia da hau, Otegi gutxien ezagutzen dutenen artean kokatzen den bitartean (5. ariketan) Bilduren ideiak izendatuenak izan baitira. Kasu honetan alderdia hura agintzen dutenak baino gehiago ezagutzen dutela esan dezakegu.

Susana Diaz dagokionez, bere alde jokatzeko zuen faktore baldintzatzaile batekin aurkeztu zen, izan ere, PSOeko barne hauteskundeak zirela eta komunikabideetan oso aipatua izan zen inkesta hau egin zen tenorean. Egoera hori aprobeztatuz Pedro Sanchezen gaineratik PSOeko ordezkari izendatzea erabaki nuen, nerabeek komunikabide tradizionalen eraginik jasotzen ote zuten aztertzeke parada ematen baitzidan. Erakutsitako erantzunek erakusten dute oihartzun honen berri izan dutela gazteek, uste bezain ezaguna suertatu baita. 4. mailan %70ak inkesta egin aurretik dagokion alderdi politikoan identifikatzen jakingo zuela aitortu zuen, 3. mailan kopuru hau %55era jaisten zen bitartean. Denetara %80tik gorak zuzen erantzuten jakin izan du, gainontzekoek PPrekin nahastu duten bitartean. Aldiz, kontrakoa gertatu da PSOeren ideologia aztertzerako orduan, erantzunak mota guztietakoak izan baitira. Hala adierazten du 5. ariketan pausatutako erantzunetan, oso gutxi aitortu dutelako bere ideologia ezagutzen dutela. Gutxien ezagutzen den alderdia izan da 3. mailan, %3 izanik zenbateko hau, eta 4. mailan kopuru hau ez da %15ik pasatu.

Esperanza Aguirreren kasuan, antzeko arrazoiengatik erabaki dut jartzea PPrekin. Oso pertsonaia ezaguna da komunikabideetan, baina batez ere familia testuinguruetan, duela urte pare bat politikaren lehen planotik irten bazen ere eragin eta interes (onerako zein kalterako) handiko pertsonaia izaten jarraitzen duelako. Nerabe hauentzat ez luke oso ezaguna izan behar, gainontzeko beste pertsonaia guztiekin alderatuz, hau baita bakarra ez duena politikaren lehen mailan jarduten, baina aurreiritzi guztien kontra agertu diren erantzunak oso esanguratsuak izan dira. Gehiengo zabal batek (%80tik gora) PPrekin lotzen jakin izan du, oker ibili direnak PSOerekin lotu duten bitartean. Datu hauek defendatuz, eta nire interesa piztuz, PPri dagozkien ideiak lotzen zuzen ibilitakoaren kopurua altu izaten jarraitu du ikasleen artean, nahiz eta PSOerekin identifikatu

dituztenen kopuru esanguratsu bat ere egon den. Egia da ariketan agertzen diren aldarrikapenen zerrenda oso dikotomikoa dela Espainiako alderdi kontserbadorearen ikuspuntutik analizatzen badugu, 6tik 3k abertzaletasunarekin lotutako ideiak defendatzen dituztelako eta batek politika sozialak azpimarratzen dituelako. Nolabait gazteak PP eskuineko politikekin eta Espainiako batasunaren ideiarekin identifikatzeko gai dira, eta hala erakutsi dute nire ustez ariketa honetan.

Azkenik, Uxue Barkos Nafarroako ordezkari bakarra dugu, lehendakaria eta beraz azpimarragarriena baina bakarra azken finean. Jasotako laginek ez dute hurbiltasun hau baztertzen, Pablo Iglesiasen ondotik bigarren ezagunena baita datuen arabera (%62.5 inguru). Hala ere, soilik %50ak daki Gero Bairekin lotzen, %37ak Bildurekin nahasten duten bitartean. Ildo berean kokatzen dira aldarrikapenei lotutako erantzunak, Bildu eta EAJrekin batera gehien ezagutzen duten alderdi bezala aurkezten baitute Nafarroako alderdi mixtoa, baina gero erantzunak Euskal Herriko independentziaren, Euskadiko autogobernuaren eta Nafarroako foruen defentsaren aldeko interpretazio nahasiak daudela adierazten baitute.

Azken parrafo honetan aipatutakoaren harira, eta bildutako ideien sintesi txiki bat eginez, esan dezakegu egungo nerabeek Euskal Herriko panorama politikoarekiko nolabaiteko hurbilketa erakusten dutela, baina gero ez direla gai elkarren arteko bereizkuntza garbiak ezartzeko. EAJ, Geroa Bai eta Bildu abertzaletasunaren ideiarekin lotzen dute hein handi batean, baina gero ez dakite hauen arteko desberdintasunak finkatzen. Geroa Bai eta Bilduren artean ematen den kasua oso bitxia da, lehenengoan Uxue Barkosen figura oso aipatua izan den bitartean Otegirena ezezaguna egin zaie, baina gero Bildu abertzaletasunarekin hobekiago identifikatzen jakin izan dute Geroa Bai baino.

Honetaz gain, Esperanza Aguirrek, Pablo Iglesiasek eta Susana Diazek erakusten duten joera azpimarragarria da. PP, PSOE eta Podemos gutxien ezagutzen zuten alderdien aldarrikapenen zerrendan agertzen dira bi ikasturteetan, baina alderantzizkoa gertatzen da pertsonaia politikoei buruz galdetzerako orduan. Pablo Iglesias izan da dudarik gabe errekonozimendu handiena erakutsi duena, Esperanza Aguirretik oso hurbil, eta Susan Diazek ere kopuru handiak erakutsi ditu. Espainiako panorama politikoa ezaguna egiten zaiela erakusten du honek, gainera, nahastu diren ideologiaren loturetan hau gaizki egin dutenek elkarren artean nahastuz sartu dute hanka, baina inongo kasuan abertzaletasun izpirik zeukan aldarrikapenekin. Beraz, egungo gazteek badakite, lurraldetasunaren ikuspuntutik behintzat, desberdintzen etxeko eta atzerriko alderdiak, eta ideia orokor bat ere badute gai honen inguruan.

Honekin lotuta, bai hiru galdera hauetan lortu ditugun interpretazioetan bai 6.nean eman duten informazioa jaso ondoren (iturriak), egungo gazteen informazioa nagusiki kanal tradizionaletatik datorrela baieztatu dezakegu. Ikasleen %88ak dakitena telebistari esker ezagutzen dutela aitortzen

dute, familia testuinguruarekin batera (%55) iturri nagusia bilakatzen dena nerabe hauentzat. Bestetik, ikastetxeari eta lagunarteari egindako aipamenak urrienak izan dira, %21 eta %8 hurrenez hurren. Azkenik, ikaslearen formakuntza autonomoa sustatu dezaketen informazio iturri alternatiboen kopurua, hau da, euren kabuz jasotakoa (militantzia besteak beste) edota iturri ezberdinetan ikasitakoa (internet, sare sozialak....) oso kaxkarra da, %17 eta %5eko balioak erakutsiz.

Datu hauen irakurketa sakonago bati ekinez, erantzunek joera nagusi bat finkatzen dutela esan dezakegu. Lehenik eta behin, familia eta telebistaren eragina hain altua izateak eta era autonomoan lortutako hain baxua zera adierazten du: sistema erreproduzitzera datorren belaunaldi baten atarian kokatzen garela, aldaketa bortizik ematen ezpada urte hauetan behintzat. Lagunartean ez da ia fenomeno politikoen inguruko aipamenik egiten, eta inplikazio gutxi agertzen dute internet bezalako iturriei dagokionez (egungo gazteak gehien murgiltzen diren espazioa), beraz, rol aktibo bat baino pasiboa jokatzen dutela uste dut, are nabarmenagoa familiaren eragina kontutan hartzen badugu, irizpide propio bat baino etxetik ekarritako bat dutela adierazten baitu honek. Horrela ulertu daitezke galdera hauei emandako erantzunak, besteak beste, Pablo Iglesias bezalako pertsonaia bat hain ongi ezagutzeak komunikabideen eragina babestu dezake, eta Bilduri emandako aitortpena bailara honetako abertzaletasun sentimenduaren isla bezala interpretatu daiteke, etxean jaso dutena.

Azkenik, informazio iturri alternatiboen (sistemaren erreprodukzioa sustatzera heldu ez direnak) eragina oso urria da, izan hau inplikazio gutxi batengatik edo aukera erreal batzuen faltagatik emana. Lehenengo adierazpenean kokatzen da nerabeek erakutsitako interes txikia, baina honekin batera ikastetxearen eraginak ere badu zer esana.

7. Ondorioak

Aldaketa garaik bizi ditugu, eta hala erakusten du globalizazioaren eta nazioarteko menpekotasunean oinarritutako testuinguruaren baitan Estatuak, gizarte zibilak eta merkatuak osatutako egituraren (governantza) garapenak. Arlo politikoan, ordea, aldaketarik eman ez dela argudiatuz, egungo sistema politikoak bizi duen krisia inguru honetako gazteengan (eta gizartean) ondoriorik eduki duen hala ez jakiteko, inkesta zabal bat diseinatu dugu gazte talde konkretu batekin, horretarako galdera sorta ezberdinak sortuz.

Ikasleek erakutsitako erantzunei erreparatu, hauen artean irizpide aldaketa bat igarri daiteke demokraziarekiko: parte hartzearen garrantzia azpimarratzen dute islatutako erantzun gehienek, eta ez hori bakarrik, herriaren erabakitzeko gaitasuna eta eskubidea aldarrikatzen dute parte hartzeari buruz egindako ariketan. Hala ere, ez dirudi haustura elementu nabarmenik aztertu daitekeenik gazte

hauengan, sistema politiko berri bat baino gobernu forma berriak aldarrikatzen dituztela ondorioztatu genezake lagin hauetatik.

Bestalde, hezkuntza sistemak gazte hauekiko betetzen duen hezkuntza demokratiko eta hiritarrari begira, arlo honetan hutsune baten aurrean gaudela defendatzen dugun honetan ikerketa honek ezagutza eta bide batez interesa zabaltzeko tresna bezala balio dezakeelan nago. Ikasleen erreflexioa bideratzeko ariketa izateaz gain, errealitate politikoaz galdetuta gai honen inguruko ezagutza zabaldu dezake.

Ikasleei dagokionez, ez du ematen gai honetan interes handirik erakusten dutenik, gainera, barneratu dituzten ideiak (eta ezagutza) testuinguru tradizionaletik jasotzen dituztela ondorioztatu dezakegu, komunikabideen eta familiaren eragin nabarmenarekin. Bertan ere zer esan handia dauka hezkuntza sistemak, ezpaitu ematen nerabeak inguratzen duten errealitatearekin harremanetan jartzen dituenik, bere egitekoa kontzeptu abstraktu batzuen barneratze soilera bideratzen baita.

Honenbestez, LOMCEren baitan garatutako kurrikuluan LOErekiko atzera pauso handi bat eman dela baieztatu dezakegu, eta ez hori bakarrik, Historia eta geografiako atalaren baitan osatutako eduki, estandar ebaluagarri eta ebaluazio irizpideek ez dute behar bezalako ikaskuntza prozesua bermatzen ikaslearen aldetik. Hortaz, beharrezkoa suertatzen da irakaslearen metodologiaren baitan garatutako irakaskuntza-ikaskuntza estrategiei indarra emango liokeen sistema baten alde egitea, horretarako irakaslegoaren formakuntza ez hainbeste kurrikuluan oinarrituz gaitasunetan baizik.

8. Bibliografía

AABB (1991), Procesos cognitivos en la comprensión de la ciencia: las ideas de los adolescentes sobre la química, C.I.D.E, Madrid.

ARRIGHI, Giovanni (2014), *El largo siglo XX*, Madrid, Siglo XXI

BARBÉ, Esther (2010), Multilateralismo, adaptación a un mundo con potencias emergentes, *Revista Española de derecho internacional*, Sección ESTUDIOS, LXII/2, 21-50

BARRIGA, MOLINA eta GÁMEZ (2017ko otsailaren 25ean), Representaciones Sociales de los Adolescentes Catalanes sobre la Participación Política en Democracia, *International Journal of sociology of education*, 6 (1), 85-109.

BAUMAN, Zygmunt (2011), *Modernidad Liquida*, Fce

----- (2013), *Vida Liquida*, Planeta

CASTAÑEDA Meneses, Marta (2012), Aprender a enseñar conceptos sociales: la formación didáctica de las ciencias sociales en la carrera de Educación Básica de la Universidad de Playa Ancha. Estudio de casos (doktoretza tesia), UAB, Bartzelona

CASTELLS, Manuel (1996), La era de la información. Economía, sociedad y cultura, *México siglo XXI*, vol.1

CARDENAS, PARRA, PICÓN, PIDENA eta ROJAS (2007ko uztailean), Las representaciones sociales de la política y la democracia, *Última década*, 26. zenbakia, CIDPA Valparaíso, 53-78.

COLOMBO, Celia (2006), Innovación democrática y TIC, ¿hacia una democracia participativa?, *Revista de internet, derecho y política*, 3, 28-40.

De ZAYAS, Alfred-Maurice (2014ko abuztuan), Promoción de un orden Internacional democrático y equitativo, Nazio Batuen Asanblada Orokorra, A/69/272

DÍAZ Gómez, Álvaro (2005eko ekainean), Representaciones sociales juveniles sobre la democracia, *Reflexión Política*, 7, 180-191, Universidad autónoma de Bucaramanga, Colombia

DIETERICH Steffan, Heinz, El socialismo en el siglo XXI, <https://www.rebelion.org/docs/121968.pdf>

GONZALEZ Valencia, Gustavo Alonso (2012); La formación inicial del profesorado de ciencias sociales y la educación para la ciudadanía en Colombia: representaciones sociales y prácticas para la enseñanza (doktoretza tesia), Universitat Autònoma de Barcelona, Bartzelona

GIL de Gómez Pérez-Arados (2013ko apirilean), ¿Qué democracia tenemos? Democracia real y democracia liberal representativa, *Nómadas: Revista Crítica de Ciencias Sociales y Jurídicas*, 40

HOBBSAWM, ERIC J. (2015), Guerra y Paz en el siglo XXI, editor digital Titivillus, Lectulandia.com

MARGARIÑO, Sergio García (2011), Desafío del sistema de seguridad colectiva de la ONU: Análisis sociológico de las amenazas globales, Centro de Investigaciones sociológicas (CIS), Ministerio de la Presidencia, Gobierno de España

NIKOLAS, ZUBIAGA, OIARBIDE eta URRUTIA (2016), Erabakitze eskubidearen aroa kudeatzeko tresna, *Jakin*, 214.2016

OBIOLS Sant, Edda (2013), *L'ensenyament i l'aprenentatge de la participació: come spot ensenyari aprendre a participar críticament en el context de les Audiències Públiques als nois i noies de Barcelona?* (Doktoretza tesia), Universitat autònoma de Barcelona, Barcelona

PAGES eta OLLER (2007ko uztailen), La visión de los adolescentes sobre el derecho, la justicia y la ley, *Didáctica de las ciencias sociales, Geografía e Historia*, 53, 73-85

----- (2007ko otsailen), Las representaciones sociales del derecho, la justicia y la ley de un grupo de adolescentes catalanes de 4º de ESO, *Investigación Didáctica*, Universidad Autónoma de Barcelona, 3-17

SUBIRATAS, Joan (2012), ¿Qué democracia tenemos? ¿Qué democracia queremos?, *Anales de la cátedra Francisco Suárez*, 46, 155-180.

VILAJOSA, Josep Maria (2014), Principio democrático y justificación constitucional del derecho a decidir, *Revista d'estudis autonòmics i federals*, 19, 178-210

W. COX, Robert (2013), Fuerzas sociales, estados y órdenes mundiales: Más allá de la Teoría de Relaciones Internacionales, *Relaciones Internacionales*, 24, Grupo de Estudios de Relaciones Internacionales GERI, UAM, Madrid

9. Eranskinak

DEMOKRAZIARI-BURUZKO INKESTA

MENDAUR BHI

Maila: 30B

Mutila/Neska: Mutila

1. Ondorengo taulan demokraziarekin lotutako hainbat ideia agertzen dira. Adierazi X batekin zure adostasun maila ideia bakoitzarentzat.

	Erabat ados	Ados	Ez nago ziur	Desados	Erabat desados
Komunitate baten barruan, gehiengoaren bozkaketaren bitartez boterea eskuratzen duenak, besteen izenean erabakiak libreki hartzeko eskubidea du.		X			
komunitateak hartu behar dituen erabakiak jendartean plazaratzen dira, eta denek erabakitzen dute jarraitu beharreko bidea.	X				
Talde batek hautaketa sistema errespetatu gabe hartzen du boterea, baina gero herritarren interesean oinarritutako erabakiak hartzen ditu.					X
Indarrean dagoen legediak erraten du erabaki bat hartzea bidezkoa den edo ez, erabaki honek herritarren borondatea islatzen badu ere.				X	

2. Jarraian, demokraziaren hainbat aspektu jomugan jarri dituen adibide batzuk agertzen dira. Erabaki hauek demokrazian sakontzen dute? Arrazoitu zure erantzuna.

1. Suediako ordezkariak bozkatzeko adina **16 urtera** jaisteko proposamena egin dute.

Ez, 18 urtera harte jende aski ez dituela. Ko ideiak argi.

2. Grezian **bozkatzea derrigorrezkoa** izan beharko lukeela proposatu zuen ordezkari batek.

Bai Ez, horrela ez da jendearen ideia kontuan hartzen da beti.

3. Lituania, Ekialde Hurbiletik etorritako imigrazio uholdea zela eta, ordezkariak proposatu zuen **erreferenduma** egitea herritarrei imigrazio-kuotak ezartzeko aukeraz geldetzeko.

Bai, demokrazia saltantzen du. Herritarrei galdetzen diotela.

3. Ondorengo taulan gure eguneroko bizitzan erabakiak hartzen dituzten politikari ezberdinen irudiak agertzen dira, haiek defendatzen dituzten alderiaren logoarekin batera. Honetaz gain, pertsonaia/alderti politikoko bakoitzari lotutako aldarrikapenak agertzen dira, baina hau guztia desordenatuta dago. Lotu itzazu pertsonaia bakoitza dagokion alderiarekin eta defendatuko lukeen aldarrikapenarekin.

Pabla Iglesias	Iñigo Urkullu	Arnaldo Otegi	Susana Díaz	Esperanza Aguirre	Uxue Barkos

 Iñigo Urkullu	 Esperanza Aguirre	 Arnaldo Otegi Uxue Barkos	 Susana Díaz	 Uxue Barkos Arnaldo Otegi	 Esperanza Aguirre
<ul style="list-style-type: none"> Euskal Herriaren independentzia Euskal langileriaren defentsa EAJ PNV	<ul style="list-style-type: none"> Larrialdi egoeran bizi direnen aldeko defentsa Ongizate estatutuaren indartzea Espainiako errealitate plurinazionalaren aitortza 	<ul style="list-style-type: none"> Espainiako Konstituzioaren (lege gorenak) defendatza ile sutua Espainiaren batasuna Podemos	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko naziotasunaren aldarrikapena Autogobernua sakontzea, baina Espainiaren barruan EHBildu	<ul style="list-style-type: none"> Espainiako errealitate plurinazionalaren aitortza Konstituzioarekiko obedientzia PP	<ul style="list-style-type: none"> Nafarroako foruen defentsa Euskararen sustapena Geroa Bai

PSOE

4. Inkesta hau burutu aurretik, ezagutzen zenuen pertsonaia hoietakoa bat? Zein?

Bai, Esperanza Aguirre, Pablo Iglesias, Susana Díaz, Uxue Barkos

5. Alderdi Politikoren batek egindako aldarrikapena identifikatzea erraza suertatu zaizu? Zein konkretuki?

Ez.

6. Adierazi nola edukitzen duzun zure inguruko errealitate politikoaren berri (aukera bat baino gehiago hautatu daitezke):

Etxean telebista ikusten zaudenean

Familiarekin hizketan

Lagunen artean eztabaidatzen

Ikasketxean

Zure kabuz (egunkaria irakurtzen, galdetuz....)

Beste iturri batzuk (adierazi)

DEMOKRAZIARI BURUZKO INKESTA

MENDAUR BHI

Maila: 4

Mutila/Neska: Neska

1. Ondorengo taulan demokraziarekin lotutako hainbat ideia agertzen dira. Adierazi X batekin zure adostasun maila ideia bakoitzarentzat.

	Erabat ados	Ados	Ez nago ziur	Desados	Erabat desados
Komunitate baten barruan, gehiengoaren bozkaketaren bitartez boterea eskuratzen duenak, besteen izenean erabakiak libreki hartzeko eskubidea du.			X		
komunitateak hartu behar dituen erabakiak jendartearen plazaratzen dira, eta denek erabakitzen dute jarraitu beharreko bidea.	X				
Talde batek hautaketa sistema errespetatu gabe hartzen du boterea, baina gero herritarren interesean oinarritutako erabakiak hartzen ditu.		X			
Indarrean dagoen legediak erraten du erabaki bat hartzea bidezkoa den edo ez, erabaki honek herritarren borondatea islatzen badu ere.				X	

2. Jarraian, demokraziaren hainbat aspektu jomugan jarri dituen adibide batzuk agertzen dira. Erabaki hauek demokrazian sakontzen dute? Arrazoitu zure erantzuna.

1. Suediako ordezkariak bozkatzeko adina **16 urtera** jaisteko proposamena egin dute.

Nere ustez adina altuagoa izan beharko luke, 16 urterekin ez ditzake aukeratzeko burua jakiteko gauz horetaz.

2. Grezian **bozkatzea derrigorrezkoa** izan beharko lukeela proposatu zuen ordezkari batek.






Nere ustez ongi dagoela, horrela erabakia bat ateko ~~zere herriak~~ ^{zere herriak} aukeratuakoa.

3. Lituania, Ekialde Hurbiletik etorritako imigrazio uholdea zela eta, ordezkariak proposatu zuen **erreferenduma** egitea herritarrei imigrazio-kuotak ezartzeko aukeraz geldetzeko.

Ara ongi iruditzen zaizkidan gurean herri-talderi perjudikatzen dielako harrera edo txarrera, orduan erabakia herriak hartu beharko zuten.

3. Ondrengo taulan gure eguneroko bizitzan erabakiak hartzen dituzten politikari ezberdinen irudiak agertzen dira, haiek defendatzen dituzten alderdiaren logoarekin batera. Honetaz gain, pertsonaia/aderdi politiko bakoitzari lotutako aldarrikapenak agertzen dira, baina hau guztia desordenatuta dago. Lotu itzazu pertsonaia bakoitza dagokion alderdiarekin eta defendatuko lukeen aldarrikapenarekin.

					
Pablo Iglesias	Iñigo Urkullu	Arnaldo Otegi	Susana Diaz	Esperanza Agirre	Uxue Barkos

				
<p>2</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskal Herriaren independentzia Euskal langileria defentsa 	<p>5</p> <ul style="list-style-type: none"> Larrialdi egoeran bizi direnen aldeko defentsa Ongizate estatuaren indartzea Espainiako errealitate plurinazionalaren aitortza 	<p>3</p> <ul style="list-style-type: none"> Espainiako Konstituzioaren (lege gorenak) defendatzaile sutsua Espainiaren batasuna 	<p>6</p> <ul style="list-style-type: none"> Espainiako errealitate plurinazionalaren aitortza Konstituzioarekiko obediencia 	<p>4</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskadiko nazioetasunaren aldarrikapena Autogobernua sakontzea, baina Espainiaren barruan

4. Inkesta hau burutu aurretik, ezagutzen zenuen pertsonaia hoietako bat? Zein?

Bai, denak.

5. Alderdi Politikoren batek egindako aldarrikapena identifikatzea erraza suertatu zaizu? Zein konkretuki?

Bai, Geroa bai eta eh bilduerena.

6. Adierazi nola edukitzen duzun zure inguruko errealitate politikoren berri (aukera bat baino gehiago hautatu daitezke):

Etxean telebista ikusten zaudenean	Familiarekin hizketan	Lagunen artean eztabaidatzen	Ikasketxean	Zure kabuz (egunkaria irakurtzen, galdetuz....)	Beste iturri batzuk (adierazi)

DEMOKRAZIARI BURUZKO INKESTA

MENDAUR BHI

Maila: *Y.B*

Mutila/Neska: *M.D.I.*

1. Ondorengo taulan demokraziarekin lotutako hainbat ideia agertzen dira. Adierazi X batekin zure adostasun maila ideia bakoitzarentzat.

	Erabat ados	Ados	Ez nago ziur	Desados	Erabat desados
Komunitate baten barruan, gehiengoaren bozkaketaren bitartez boterea eskuratzen duenak, besteen izenean erabakiak libreki hartzeko eskubidea du.				<i>X</i>	
komunitateak hartu behar dituen erabakiak jendartean plazaratzen dira, eta denek erabakitzen dute jarraitu beharreko bidea.		<i>X</i>			
Talde batek hautaketa sistema errespetatu gabe hartzen du boterea, baina gero herritarren interesean oinarritutako erabakiak hartzen ditu.				<i>X</i>	
Indarrean dagoen legediak erraten du erabaki bat hartzea bidezkoa den edo ez, erabaki honek herritarren borondatea islatzen badu ere.			<i>X</i>		

2. Jarraian, demokraziaren hainbat aspektu jomugan jarri dituen adibide batzuk agertzen dira. Erabaki hauek demokrazian sakontzen dute? Arrazoitu zure erantzuna.

1. Suediako ordezkariak bozkatzeko adina **16 urtera** jaisteko proposamena egin dute.

Ez zait ongi iruditzen, hamasei urteko gehiengoste ez duela ideiazki politikari buruz. Adibidez, Estatu Batuetan 16 urterekin bozkatzen ahal dute. Nor da haren presidentea? Trump. ²⁵

2. Grezian bozkatzea **derrigorrezkoa** izan beharko lukeela proposatu zuen ordezkari batek.

Ez zait ongi iruditzen. Nire ideiazki, adibidez, ez dutela hainengo partidu politikarek errepresentatzen. Egia da bozkatzen eta beren jende asto gero kezu dela herriko egoerak, baina haren erabakia da.

3. Lituanian, Ekialde Hurbiletik etorritako imigrazio uholdea zela eta, ordezkariak proposatu zuen **erreferenduma** egitea herritarrei inmigrazio-kuotak ezartzeko aukeraz geldetzeko.

Ongi iruditzen zait. Erreferendumez hainaren erabakia ezin da errepresentatzen baidute.

3. Ondorengo taulan gure eguneroko bizitzan erabakiak hartzen dituzten politikari ezberdinen irudiak agertzen dira, haiek defendatzen dituzten alderdiaren logoarekin batera. Honetaz gain, pertsonaia/aderdi politiko bakoitzari lotutako aldarrikapenak agertzen dira, baina hau guztia desordenatuta dago. Lotu itzazu pertsonaia bakoitza dagokion alderdiarekin eta defendatuko lukeen aldarrikapenarekin.

1		2		3		4		5		6	
	Pablo Iglesias		Iñigo Urkullu		Arnaldo Otegi		Susana Díaz		Esperanza Aguirre		Uxue Barkos
2		5		6		1		3		4	
3	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Herriaren independentzia Euskal langileriaren defentsa 	1	<ul style="list-style-type: none"> Larrialdi egoeran bizi direnen aldeko defentsa Ongizate estatutuaren indartzea Espainiako errealitate plurinazionalaren aitortza 	5	<ul style="list-style-type: none"> Espainiako Konstituzioaren (lege gorenak) defendatza ile sutua Espainiaren batasuna 	6	<ul style="list-style-type: none"> Nafarroako foruen defentsa Euskararen sustapena 	4	<ul style="list-style-type: none"> Espainiako errealitate plurinazionalaren aitortza Konstituzioarekiko obedientzia 	2	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko naziotasunaren aldarrikapena Autogobernua sakontzea, baina Espainiaren barruan

4. Inkesta hau burutu aurretik, ezagutzen zenuen pertsonaia hoietako bat? Zein?

Bai, Gaitzak

5. Alderdi Politikoren batek egindako aldarrikapena identifikatzea erraza suertatu zaizu? Zein konkretuki?

Bai, gutxiak.

6. Adierazi nola edukitzen duzun zure inguruko errealitate politikoaren berri (aukera bat baino gehiago hautatu daitezke):

Etxean telebista ikusten zaudenean

Familiarekin hizketan

Lagunen artean eztabaidatzen

Ikastetxean

Zure kabuz (egunkaria irakurtzen, galdetuz....)

Beste iturri batzuk (adierazi)